

ASTELEHENKO Goienkaria

2008ko azaroaren 10a > Astelehenetik > VI. urtea > 210. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Ameriketako
indigenez
gain, Rio de
Janeiroko
favelak ere
ezagutu ditugu"

Eneko
Etxebarrieta
Bidaia > 06



G2a

Ana Mourak
fadoa ekarri zuen
Arrasatera > 23

OÑATI
Muk Ibarra egingo duen
campuseko lanak, hastear > 05

KIROLA
Euskadiko errugbi selekzioak
Kataluniari irabazi Mojategin > 21

KULTURA
Ganbara Txiki abesbatzaren V.
urteurreneko jaia Santa Anan > 24



HERRIKOIA Hamasei mila lasterkarik hartu zuten parte atzoko proban. Gehienendako helmugara iristea, ikusleen txaloen artean, zen saririk onena.

JOSEKO ARANZABAL

ATLETISMOA > 44. BEHOBIA-DONOSTIA

Ibarreko 464 lagunek bukatu zuten Behobia-Donostia proba

OÑATIARRAK NAGUSI Ritxar
Fernandez eta Ixaka Egurbide
ibarreko lehenak Boulevarden

ERREKORRIK EZ Chema
Martinezek berriz irabazi zuen
baina ez zuen errekorra lortu

GIRO EDERRA Eguraldia lagun,
primerako giroa izan zen
ibilbide osoan zehar > 15-19

ARRASATE > AZOKA

Lau emakumeri omenaldia

Azokarekin hutsik
egin ez duten lau
baserritar omendu
zituzten zapatuan > 09

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04
- Elkarritzeta > 06
- Iritzia > 07-08
- Herriak > 09-14
- Kirola > 15-22
- Kultura > 23-27
- Sailkatuak > 28
- Irrati-Telebista eta
Hitzorduak > 29
- Berri-zakua > 30-31
- Azkena > 32

DEBAGOIENA > AUZOAK

Arreta eske ibarreko auzoak

Ibarreko hainbat
auzoen egoera
zein den jakiteko,
hango auzo
alkateekin
izan gara berbetan > 03

Kamera opari.
Nahi?

Zoaz 2. orrialdera

Spirit of our times. New Ford Fiesta.

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, 2/g
ARRASATE

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Azaroko zozketa

PARTE HARTZEKO

SMS 5533
harpidetza@goina.com
Tel.: 943 08 10 50

**Sariak irabazteko
HARPIDETU!**
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

SARRERAKJUAN CARLOS
PEREZ-en
KONTZERTURAKO
SARRERAK

Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

SARRERAKBRUESA GBC-ViveMenorca
BRUESA GBC-Pamesa

Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

KAMERA
 EROSKI
zurekin


Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

KAMISETA**DANBAKA)))**DANBAKAKU
KAMISETA 1

Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKETATUKO DA

"LA PERLA" TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).

Zokzetan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEza dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinaren dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuen sareko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioa. Eskubidea izango duzu datuetan sartzeko, hain zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goina.com

AUZOAK > GAUR EGUNGO EGOERA

Ibarreko auzoek arreta handiagoa eskatzen dute

OSINTXUN ONDO

Bergarako Osintxu auzoan nahiko pozik daude gaur egungo egoerarekin, "behar puntualak" badituzte ere

AUZO TXIKIAK

Arrasateko Bedoña, Oñati eta Arotzeta, Aretxabaletako Izurieta behar asko dituztela diote hango alkateek

MIRIAN BITERI > BERGARA
Bailarako hainbat auzoetan gaur egun nola bizi diren eta zer nolako beharrak dituzten jakin nahi izan dugu. Horretarako, Debagoieneko lau herri handienak eta bakoitzetik auzo bat aukeratu ditugu: Arrasaten, Bedoña; Bergaran, Osintxu; Oñatin, Arotzeta; eta Aretxabaletan, Izurieta.

Guztien artean Osintxu da biztanle gehien dituena, 475 inguru, eta hori igarri egiten da zerbitzuetan. Hango alkate Luis

Mari Alberdi ez da kexatzen, bestek beste, liburutegia, ludoteca, eskola, aisialdi eta kirol ekimenak egiteko aretoa, frontoia, taberna bi eta denda dituzte-eta. Komunikazio aldetik ere ondo daudela dio alkateak.

ERA PREKARIOAN

Bedoña ez dute berdina esaten. Hango alkate Mariasun Garaik garraio zerbitzurik ez izana kritikatu du. Gainontzeko auzoetan ere ez daude askoz hobeto. Zer-

bitzu minimoak baino ez dituztela salatu dute guztiak: zabor bilketak eta auzo inguruneen garbiak, esaterako. Izurieta alkate Luis Otadui azaldu digu, esaterako, auzoan ez dutela saneamendurik eta baserri batzuek bere kabuz sartu dituztela. Arotzeta alkate Mirari Guridi, bestalde, jakinarazi digu kezkatuta daudela auzoa hutsik geratzen ari delako apurka-apurka. Datozen lerroetan bakoitzaren egoeraren berri ematen dugu.



Izurieta alkate Luis Otadui atzean AP-1eko tuneleko ahoan izandako lur jausia konpontzeke duela, Aretxabaletan.

M.B.

AP-1eko lur jausia konpon dezatela nahi dute Izurieta

Aretxabaletako Izurieta auzoa txikia da. Hamaika baserri ditu, bi zonaldetan banatuta: Eliza ondoa eta Ametza. Bi baserri hutsik daude eta beste hiru asteberuetan bakarrik daude okupatuta. Hango

alkate Luis Otaduiak dio 18 biztanle dituela: "Zortzi erretiratu daude, zaharrenak 93 urte ditu; eta bost lagun bakarrik daude 40 urtetik beherakoak". Zerbitzuak eskasak direla dio. Azaldu du gerta daitezkeen suteen aurrean, baserri bakotzean ureztatze-ahoa jar eta herri bideak behar bezala eduki ditzala eskatu diola Udaleri. Saneamenduak eta Internet ere eskatu dituzte. Postariak ere etxetxe joaten jarraitu dezala ere gura dute. Arazoak ere ez dira falta han. 2006ko abenduan, AP-1

autobideko Izurieta tuneleko ahoan lur jausia izan zen. Bi urte pasa badira ere, oraindik konpontzeke dago hori. Otaduiak salatu duenean, "orain arte ez dute ezer egin. Aste Santurako autobidea zabaldu nahi dute eta konpondu barik dago. Tunel ahoa gure etxe azpietan dago eta beraz, beldurtuta gaude etxearen segurtasunagatik".

Otaduiak kritikatu du, gainera, baserriengako laguntzarik ez dagoela. "Kaleko herritarrek dute lehentasuna, baserrietakoak baztertuta gaude".

Osintxun gas naturalaren beharra ikusten dute

Luis Mari Alberdi Bergarako Osintxu auzoko alkatea da. Azken urteotan biztanleen kopurua mantendu egin dela azaldu du; 475 lagun inguru ditu. Bainak, biztanleria aldatu egin dela gaineratu du: "Bertako jendea Bergarara edo inguruko herrietara joan da eta inmigranteak etorri izan dira. Bada urte asko ez dela aukera egon etxeak egiteko. Hamabi urtez moteltasuna egon da gai horren inguruan".

Alberdiren esanetan, Osintxu zerbitzu aldetik "nahiko ondo" dago. Liburutegia, ludoteka,

frontoia, taberna bi, denda, pasealekua, eskola, aisiaaldi eta kirol ekimenak egiteko aretoa eta autobus linea ona daukate, besteak beste. Gainera, egunotan bi ordenagailu jarri dituzte liburutegian, Internet erabili ahal izateko.

Auzo alkatearen arabera, "behar puntualak ditugu, esaterako, farmazia. Bainak, falta horiek gaur egun ez dira hainbeste nabaritzen, Bergara bi minutura daukagu-eta autoz".

Bergarako Udalak egindako lanarekin gustura badaude ere, hainbat gabezia dituztela azpimarratu du. Horien artean, lehentasuna duena gas naturala dela dio: "Mekoladeraino iristen da. Bi kilometroren faltan gara. Dagoneko eskatu dugu baina oraindik ez dugu erantzunik jaso". Gainera, elizatik behera aparkalekuaren premia ere badagoela dio Alberdi.



Luis Mari Alberdi Osintxuko plazan. 474 lagun inguru bizi dira Bergarako auzo horretan.

M.B.



Mirari Guridi Araotz auzoko plazan, zapatuan.

Bedoñan azpiegiturak eta zerbitzuak behar dituzte

Arrasateko Bedoña auzoan ehun lagunetik gora bizi dira. Hango alkate Mariasun Garaik egungo arazoak azaldu dizkigu. Auzora doan errepidean askotan arazoak daudela dio, oso estua delako. Bada, zabaltze prozesua bidera dadin lehen pausuak eman dituztela ere esan du.

Alkateak dio auzoko erdiguneak, elizaren inguruak, hiri-lurzoru izendapena duela 2003tik eta zerga altuak ordaindu behar direla. Auzoak duen egitura kontuan hartuz

izendapen horrekin ez daude ados eta aldatzeko eztabaibaidan dabilta-tela ere nabarmendu gura izan du. Hiri lurzoru izena duten arren, zerbitzu minimoak dituztela salatu du, hala nola, zaborra batzea edo putzu beltzak garbitzea: "Azpiegiturak hobetzea nahi dugu; esaterako, saneamendu, gas zerbitzu eta zuntz optiko sareak eta garrantzi handikoa den garraio zerbitzua".

Egungo informazio gizarteari aurre egiteko, bestalde, eskola etxearen informatika saioak eta Internet zerbitzua dute auzokoendako eta bertako batek eskolak ematen ditu. Horretaz aparte, auzoan mugimendua eragiteko Bedoña Batu elkartea kulturala ere sortu du talde batek. "Auzoari bizitza ematen diote, lan handia egiten dute", aipatu du azkenik.



Mariasun Garai Bedoñako alkatea, joan den astean.

M.B.

Berpiztu egitasmoa eztabaidagai Araotzen

Oñatiako Araotzen arduratuta daude, auzoa husten ari delako. Egun 40 lagun inguru bizi direla eta gehienak oso nagusiak direla esan digu hango alkate Mirari Guridik. Horri buelta emateko,

Berpiztu izeneko egitasmoan sartu ziren. Etxe berriak eraikitzean eta horien jabeek laguntzak izatean datza. Proiektuak aurrera egin edo bertan behera utzik duden erabakiko dute abenduan egingo duten bazarrean. Bertakoak ez daude prest etxe horietan sartzeko eta beraz, proiektua kanpoko jendeari zabaltzea edo ez galdeztuko dute horretan.

Bestalde, auzoan zerbitzurik ez izateak ez duela laguntzen azpimarratu du: "Horri irtenbidea ematea ez da erraza, jende

gutxi duelako. Ondo egongo litzateke umeak eskolara eramango dituen autobusa izatea eta denda edo okina egunero pasatzea. Bainak, jendea bizitzen ez badator, etorkizuna beltza du auzoak". Hori berpizteko, eskolan museoa egitea ere eskatu dute eta prest azaldu da Udalak.

Horren harira, Udalarekin pozik daude; orain plaza berritu dute. Guridik gogorarazi du, baina, oraindik asko geratzen dela konpontzeke: plaza inguruko frontoia eta bola lekua, adibidez.

i KER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR



POLITIKA > EZ OHIKO OSOKO BILKURAK

Francok ohorezko alkate izateari utzi dio Arrasaten, Eskoriatzan eta Elgetan

Arrasaten eta Eskoriatzan eguneko osoko bilkuran baliogabetu zuten; Eskoriatzan aho batez eta Arrasaten PPkoen kontrako botoarekin

U. MADERA/A. EZKIBEL > BERGARA

Duela bi aste Debagoieneko fusilatuaren senitarteko eta lagunen batzordeak eta Intxorta kultur elkartearak egindako salaketa dela eta, Debagoieneko hiru herriean Franco ez da dagoeneko ohorezko alkate. Hain zuzen, Arrasate, Eskoriatza eta Elgetan indargabetu dute izendapena.

Arrasaten eta Eskoriatzan eguneko bilkuran baliogabetu zuten izendapena. Eskoriatzan aho batez onartu zuten izendapena baliogabetzea osoko bilkuran elkartu ziren zortzi zinegotziek.

ARRASATEN, PP-K KONTRA

Arrasaten, aldiz, ez ohiko osoko bilkuran, Franco ohorezko alkate izendapenetik kentzeko eskaera onartu bazen ere, ez zuten aho batez egin. Horrekin batera onartu zuten frankismoaren biktimen aldeko adierazpen instituzionala. Hain justu, talde mistoak, EAk, EB-Zutik koalizioak, EAJk, Aralarrek eta PSE-EEk bozkatu zuten izendapena baliogabetzearen alde, eta alderdi popularreko zinegotzi Itziar Lamarainek kontra bozkatu zuen.

PPko ordezkariak azpimarra-tu zuen ados zegoela Francoren izendapena baliogabetzearekin; are gehiago, aditzera eman zuen hainbat udaletan PPk bultzatuta egin zuela hori; baina horrekin batera gaineratu zuen ezin zuela babestu frankismoaren biktimen aldeko adierazpen instituzionala. Horrek arrasatearen arteko enfrentamendua ekarriko lukeela gaineratu zuen.

ELGETAN ERE INDARGABETU DUTE

Elgetan artxiboa eta jo zuten eta konturatu ziren, Francok herriko ohorezko alkate karguan jarraitzen zuela. Izan ere, 1949an izendatu zuten, Bartolome Elkoro alkate zela. Joan den asteko osoko bilkuran, indargabetu egin zuten izendapen hori.



Arrasateko osoko bilkuran, Debagoieneko fusilatuaren senitarteko eta lagunak. U.M.



JOSEKO ARANTZABAL

Komiteak deitura manifestazioa egin zuten Candy Hoover-ekoek

Bergarako Candy Hoover enpresako langileen komiteak deitutako manifestazioa langileak batu ziren. Egubakoitz iluntzean egin zuten manifestazioa, San Martin plazan hasita. Manifestazioaren arrazoia azken hilabeteotako egora salatza izan zen. Izan ere, enpresako zuzendaritzak bi langile kaleratu ditu hilabete baten barruan "diziplina arrazoiengatik". Komiteak salatu duenez, enpresak duen eszedentea ezin da diziplinazko kaleratzeen bidez konpondu.

EUSKARA > BIKAIN ZIURTAGIRIA

Bikain ziurtagiria jasoko du Goienak

Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiria gaur banatuko dute Bilboko Euskalduna jauregian, 18:30ean

sidentea izango da han ziurtagiria jasotzen. "Goienak beste bederatzi enpresekin batera proiektu pilotuan hartu zuen esku", azaldu du Inazio Arregi Goiena Komunikazio Zerbitzuak-eko zuzendariak.

EBALUAZIOA

Ebaluazio-prozesuak antza du enpresen kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko erabili ohi den metodoarekin. Kanpoko talde ebaluatzaile batek ebaluatzen du enpresa, indar-guneak eta zer hobetuak identifikatz. Horretarako aurrez helarazitako informazioa irakurri eta enpresa bisitatuko du. Ondoren, enpresak ebaluatzaileek landutako ebaluazio-txostena jasoko du, lortu duen puntuazioa barne. Puntuazio hori behin-betikoa izango da.



très Bonn.

Très Bonn hitz gutxitan Citroën C5-ak zer adierazi nahi duen esateko era da. Azken xehetasun txikieneraino kalkulatutako elegantzia eta teknologiaren nahasketa da. Benetako luxua zein den adierazten duen espresso admimentsua : Beste ezer baino lehen kaltitatea. Egundoko kotxea, ondo pentzatau, ondo eginkinak.... aleman izaeradun azken berrikuntzei benetako frantzes izpiritua gaineratua. Bi hitzetan "Très Bonn".

Citroen C5 berria. Izaera alemana. Izpiritua frantsesa.

Citroen- ek osoa nahiago du
www.citroen.es
Kontsumo mistoa (L /100 km) / CO2 Emisioa: (gr/km) C5: 5,6 – 10,5 / 149 – 248

Etor zaitez ikustera

Talleres Chapime, S.C.L.
Debagoieneko Citroën Kontzesionario ofiziala. San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22
Tallerreko orduetegia: Astelehenetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua. (Aurrez deitu)

CITROËN C5 BERRIA

OÑATI > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Ibarrako campuseko lanak, hastear

MUko fakultate berria 2010erako zabaldu nahi dute, Eteoren 50. urteurrenarekin bat egiteko

EDU MENDIBIL > OÑATI

Mondragon Unibertsitateak Oñati kirolgunean egindako lanak datozenten egunotan jarriko dituzte abian. Oñati Udalak lursailaren salmenta lehiaketara aterra du dagoeneko. Udaleko iturrien arabera, 1.506.825 euro jasoko dituzte aipatutako lursailaren salmentagatik. MUk ez luke behar duen 7 milioi euroko kreditua eskuratuko lursailen jabegoa ez badauka, eta hori dela eta lursaila salmentara ateratzea

erabaki du Udalak. Tanteo esku-bidea ziurtatu du Udalak etorkizunera begira.

Mondragon Unibertsitateko campus berriak 20.000 metro koadroko azalera izango du. 8.752 metro koadroko azalera eraikiko dute eta horietatik 6.363 m² erabilgarriak izango dira.

ERAIKIN MODERNOA

Eraikin berriak auditorioa, 27 gela, laborategia eta aula informatikoa, ikerkuntzara zuzendutako beste hiru gela, liburutegia,



IBARRA Mondragon Unibertsitateko campus berria Oñatin egingo dute. ARTXIBOA

bulegoak, batzarretarako sei sala eta kafetegi-jatetxea izango ditu, besteak beste. Bestalde, 200 auto aparkatzeko tokia izango du campus berriak. Mondragon Unibertsitatearen helburua zera da: kooperatiben eta ekonomia sozialen enpresen ikerkuntzan eta formazioan nazioarteko erreferenteetako bat izatea.

2010ERAKO, GERTU

MUko Enpresa Zientzien Fakultateak campus berria 2010eko irailerako gertu izatea nahi du. Izan ere, 50 urte beteko dira orduan Eteoko abian jarri zutenetik. Esan bezala, datozen asteotan lanak hasiko dituzte, dirulaguntzak jaso ahal izateko urtea amaitu baino lehen hasi behar dira-eta.



Srebenicako sarraskiaren lekuak, gaur Eskoriatzan

Bosniako gerrako biktimen elkartetako bi ordezkarri, Hajra Catic eta Hatidza Mehmedovic, Eskoriatzako Ibarraundi museoan izango dira gau, 19:00etan. Srebenicako sarraskiaren gainean jardungo dute: 1995eko uztailean, egun gutxiren buruan, 8.373 lagun (tartean 500 adin txikikoak) hil zituzten Karadzicek zuzendutako paramilitar serbiarrek. Mehmedovicen senarra eta bi seme-alabek galdu zituen eta Caticen senarra eta semea. Ezker Batuak antolatu du gaurko hitzaldia. Izan ere, Eskoriatzak bosniar errefuxiatu asko jaso zituen sasoi hartan.

ARETXABAleta

Haritz Errasti presoari ongi-otorria

Errasti 2005eko uztailean atxilotu zuen polizia frantsesak

A.G. > BERGARA

Zuhaitz Errasti preso aretxabaletarrari ongi-otorria egin zioten egubakoitz gaelean, Mitarten. 150 lagun inguru elkartu ziren. Dantzariek aurreskua eskaini zioten.

HILAREN 26AN EPAIKETA

Zuhaitz Errasti eguztenean espinpiaratu zuten eta Madrileko Entzutegi Nazionalean deklaratu ondoren, epaileak aske utzi zuen egubakoitzean. 2005eko uztailaren 28an atxilotu zuen polizia frantsesak ETAko kide izatea egotzita. Auzitegi Nazionalean Errastirenen aurkako bide judizial bat irekita dago "terrorismoari gorazarre" egiteagatik. Azaroaren 26an epaituko dute. 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak.

> ARRASATE

Jesus Maria Herrasti izango da Garaiako presidente berria

Jesus Maria Herrasti Garaia Berrikuntza Guneko presidente izendatu berri dute. Mondragon Taldean, nazioarteko operazioen ardura izan du Jesus Maria Herrastik azken urtetan.

Sei urtez Garaiako presidente izan den Jose Ignacio Garateren lekuoa hartuko du Herrastik.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Brasilenezagutuzutenelkar, Etxebarrieta bizikletaz munduari bira ematen ari zela. Gurasoak Japo-

niakoak dituen Miyuki Okabe brasillardar eta Gasteizko Eneko Etxebarrieta, batera itzuli ziren Euskal

Herrira. 2005ean, tandemean, Hego Amerika ezagutzeko apustua egin zuten, eta orain bidaiko

kontuekin ikus-entzunezko bat egin dute; Aretxabaletan eta Bergaran izan dira asteon.

Eneko Etxebarrieta > Bidaia eta abenturazalea

"Ameriketako indigenez gain, Rio De Janeiroko favelak ere ezagutu ditugu"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Abenturagoga etagizagaiekiko compromisoa uztartuditzte bidaian. Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabe adjektiboren batekin definitu beharko bagenitu, hauek erabiliko genitzke beste batzuen artean: bidaari trebeak, abenturazaleak, eta batez ere giza gaiekin konprometituak. Oraingo urteko ekainean bukatu zuten 2005eko otsailean Hego Ameriketan barrena eta bizikletan, tamdemean hasizten bidaia. Bidaari bakaeraemateko arrazoia, Okabe haundun gelditu zela.

Tandemean Hego Ameriketan barrena ibili zarete emaztea eta biok, baina, aurrez ere egin zenuen tankera horretako bidaiarik ezta?

Munduko bira egin nuen biziak nire kabuz. 1999an irten eta 2002an bueltatu nintzen. Asmoa hasiera batetan lau hilabetetako bidaia egitea bazen ere, azkenean lau urte eman nituen horretan. Esperientzia zoragarria eta oso aberasgarria izan zen. Bidaia haran Brasilera iritsi nintzen eta Curitiba herrian, Miyuki, emaztea ezagutu nuen. Bidaia hartatik, Miyuki bueltatu nintzen Euskal Herrira.

Hego Ameriketan barrena emazteak eta biok egin zenuten bidaian zein ibilbide egin zuten?

Hegazkina hartu eta Ushuaia joan ginuen. Oso toki polita da, berezia. Munduan hegoalderen dagoen hiria da. Handik, kostaldeko iparralderako bidea hartu genuen. Argentina eta Uruguay zeharkatu eta Brasilen, Amazonaseko ibai-ahoan dagoen Belen hiraino joan ginuen. Ondoren, Amazonas erditik, Manaos hiritik, Caracasaino joan ginuen. Bertan jakin genuen Miyuki haundun zegoela eta Gasteizera bueltatzea erabaki genuen.

Biko bizikleta batetan joan zinenten baina bertan beste berri bat egin zizueten ezta?

Lehenengo tandemoa ona zen, baina astuna guretzat. 100 kilo zituen karga eta guzti. Bidean, Rio de Janeiro, ingeniarri bat ezagutu genuen bizikletak modu artisauan egiten zituen. Elkarritzeta bat egin genion gure webgunerako eta hasi zen berba egiten bizikleta etzanaren gainean. Berak prestatu zigun bigarren bizikleta eta hortik aurrera hobeto ibili ginuen, eroosoago. Postura ego-kiagoa zen eta kilometro gehiago eginen genituen berriarekin.



Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabe Hego Ameriketan barrena egin zuten bidaian.

MIREN ARREGI

HEGO AMERIKA

"Ushuaian hasi eta Argentina, Brasil eta Uruguay zeharkatuz, Caracasaino joan ginuen"

Abentura kutsua ez da falta izan, baina izaera sozialagoa izan du bidaiaik ezta?

Bai. Ni argazkilaria naiz eta Miyuki telekomunikazioko ingeniarria da. Pentsatu genuen bion formazioarekin eta esperientziarekin, komunikazio proiektu bat hiltzea. Helburua beraz, ez zen

BIZIKLETA

"Hemendik eroandako tandem alboratu genuen, Brasilen egin zigutena hobea zen-eta"

bakarrik bidaiatu eta ongi pasatzea, baizik eta esperientzia hori zabaldutu eta baita bidaia izaera sozial bat ematea. Interneten bitartez komunikatzeara zen helburua eta bion artean www.acercandoelmundo.com webgunea sortu genuen, gure esperientziaren berri emateko. Bizikletak bide ematen du mundua

IZAERA SOZIALA

"Bidaian zehar Unicef-ek herrialde horietan dituen proiektuak ezagutu ditugu"

ezagutzeko eta toki desberdinetaiko errealitatean sakontzeko; komunikazio proiektuaz gain, pentsatu genuen proiektu solidario bat ere garatzea. Horretarako, Unicef-ekin berba egin genuen eta bidaian zehar erakundeak herrialde desberdinatan dituen proiektuetan parte hartzen ibili gara. Argazki erreporta-

jeak egitea zen gure lana, Unicef elkartea berak erabiltzeko. Halaber, gure web orrialdean ere era-kusgai ipini ditugu horiek guztiak.

Bidaian zerk harritu zaitu gehien?

Bi kolektibo interesgarri eta berezi ezagutzeko aukera izan dugu. Afrikatik esklabo ekarritako beltzan ondorengoa eta indigenak. Afrikatik Ameriketara eroandako beltzak, Brasil, Salvador hiri inguruan bizi dira. 300 urte esklabo bezala egon ondoren, egin ez dira esklaboak baina euren egoera zuriena baino askoz okerragoa da, eta ezin izan dira zulotik ateratzen. Egoera hori eurekin bizi eta harriarria izan da. Beste kolektibo interesgarria indigena da. Horiek batez ere Brasilgo iparraldean ezagutu ditugu, Roraima estatuan. Askok eta askok, hirietan bizi direnak batez ere, galdua dute indigena izaera hori, baina beste batzuk euren hizkuntza dute eta hori mantentzen dute. Agintariekin zapalduta eduki dituzte, eskubideak ukatuta, lurra kenduta...

Rio de Janeiroko favela bat ere ezagutzeko aukera izan zuten...

Favelak auzo marginal handiak dira, batzuetan bi milioi pertsona ere bizi dira. Unicef-eko talde batekin joan ginuen bertara, bertako jendearekin, bestela oso zaila eta arriskutsua da-eta favelatara iristea. Askotan tiroketak entzuten dira, izan ere, trafikanteek eta paramilitarrek boterea hartzen dute toki horietan, eta nahi dutena egiten dute, eurek egituratzetan dute gizartea. Halako hiri handietan kontraste handiak ikusten dira gainera: faveletan, bi logelako etxebizitzia batetan 18 pertsona bizi direla ikusten duzu, egoera eskasetan eta bertatik, hondartzarik zoragarriak ikus daitezke, non 500-600 metrotako luxuzko etxeak ikus daitezkeen.

Klima aldaketekin asko sufritu zuten...

Aldaketa handiak jasan behar izan genituen. Ushuaian zero azpitik 15 gradutako temperaturatik Ekuadorreko bero jasangaitzetara pasatu ginuen. Bi muturrak ezagutu genituen.

Eta aurrerantzean, zer?

Bi aste barru-edo jaioko da gure umea eta jaio ondoren ere lasai hartuko ditugu gauzak. Egunen batean, baina, ziur beste bidaia batean murgilduko garela hirurok, auskalo nora22.

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> AEDren 25. urteurreneko lehen hitzaldia

AED elkartearren 25. urteurrenena ospatzeko ekintzen artean, *Euskarak. Gerorik bai?* delako hitzaldi zikloa hasiko da egunean, hilak 13, Iñaki Martinez de Lunaren hitzaldirekin, Kulturaten, 19:00etan. Mundu globalizatuan euskarak duen tokiaren gainean jardungo du.

BERGARA

> 1934an jaiotakoak bazkaltzen batuko dira

1934an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute azaroaren 22an Zumelagan. 14:00etan batuko dira txikiteorako eta argazkia ateratzeko. Izenematea zabalik dago Zumelagan, 12 eurotan.

ARETXABAleta

> Basotxoko erretiratua, Landatik Uribarriira

Basotxoko erretiratuek irteera antolatu dute hilaren 18rako: Landatik Uribarriaino joango dira: 12 kilometro dira. 09:00etan abiatuko dira Basotxo aurretik. Izenematea zabalik dago elkartean horretarako ipini duten orrian.

ARRASATE

> Kooperatiba elkartetxien legea, berbagi

Kooperatiba elkartetxien lege berria azalduko du Norberto Alboniga Elkarlan S. Coopero kideak eguztenean, hilaren 12an, Mankon-

munitionearren egoitzan (Nafarroa etorbidea, 17), 17:30-19:30. Bi baxkide edo gehiago dituzten Debagoieneko enpresa txikiei dago zuzenduta. Mankomunitatearen Garapen Ekonomikorako Agentziak antolatu du.

BERGARA

> 1938an jaiotakoek kindada egingo dute

1938an jaio zirenek kinto ospakizuna izango dute hilaren 15ean Pertxa elkartean. Izena emateko, deitu honako-ei: M. Asun Gardoki (943 76 15 36) edo Miguel Lazcano (943 76 18 64).

ARRASATE

> Udan ume errusiarrak hartzeko deia

Bikarte elkartea udan ume errusiarrak hartzeko deia egiten die debagoendarrei. Bihar, martitzena, bilera izango da Kulturaten, 19:00etan. Argibideak: 605 70 90 22 (Amaia).

BERGARA

> Keinuen hizkuntza ikastaroak Bergarako Aransgi zentroan, urtarilean hasita

Joan den urtean jasotako erantzun ona iksita, keinuen hizkuntza ikastaroak emango dituzte Bergarako Aransgi zentroan, urtarilean hasita. Hasiera eta sakontze mailak emango dituzte. Matrikula 85 euro da. Dagoeneko izena emateko aukera dago. Interesatuek 943 76 27 03 telefono zenbakira deitu dezakete.

943 25 05 05
goienkaria@goina.com

ARRASATE
> Ozeanian bidaiatzearen gaineko hitzaldia

Australian, Zeelandia Berrian eta Hego Pazifikoan bidaiatzearen gaineko berbaldia egingo du Eroski Bidaia agentziak egunean, hilak 13, Iamai kafetegian, 19:30ean.

BERGARA

> 1937an jaiotakoek ospakizuna izango dute

1937an jaiotakoek Zabala jatetxeen bazkalduko dute azaroaren 15ean. Izenematea zabalik dago Kortazar tabernan edo Yoar oinetako denden, 20 eurotan, azaroaren 12a arte.

DEBAGOIENA

> Gurutze Gorriko boluntario ohien bazkaria

1943an jaiotako emakume arrasatearrak batera bazkaltzeko elkartuko dira. Izena emateko, joan Muruamendiaratz gozotegira.

BERGARA

> 1944an jaiotakoek kindada ospakizuna

1944an jaiotakoak afaltzera batuko dira azaroaren 29an Azpeitxin. Izenematea zabalik dago Hernandez bodegoian eta Sanchez ile-apaindegian.

diren guztiak deitzen dituzte parte hartzera, Nafarroako Kutxan ireki duten kontuan 10 euro aurreratuta. Argibideak: 616 07 04 54.

ARRASATE

> San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleak

San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleek afaria egingo dute azaroaren 29an, zapatua, eta izenematea zabalik dago azaroaren 18a arte jongoiko@iservicesmail.com helbide elektronikoan eta 649 37 58 05 telefonoan. Egunean, 19:30ean batuko dira Iratin.

ARRASATE

> 1943an jaiotako emakumeen ospakizuna

1943an jaiotako emakume arrasatearrak batera bazkaltzeko elkartuko dira. Izena emateko, joan Muruamendiaratz gozotegira.

BERGARA

> 1944an jaiotakoek kindada ospakizuna

1944an jaiotakoak afaltzera batuko dira azaroaren 29an Azpeitxin. Izenematea zabalik dago Hernandez bodegoian eta Sanchez ile-apaindegian.

ARRASATE

> 1955ean jaiotakoek kindada egingo dute

1955ean jaiotakoek kintada egingo dute azaroaren 29an. Izenematea zabalik dago, 60 euro sartuta Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

etxeko leihotik



Edu Mendibil > emendibil@goina.com

Garraio publikoan ere Bizkaiaaren atzetik

Aurreko astean, aspaldiko partez, Pesako autobusa haratu nuen Donostiatik Bergarara etortzeko. 7,35 euro ordaintzen genuenetik baina garraio publikoa merkeagoa zela pentsatzen nuen. Euroaren *kalte kolateralak* omen. Edozein modutan, trenean bidaiatzea merkeagoa da: Zumarragatik Donostiarako bidaia, esaterako, 2,90 euro balio du. Bidaia erosoagoa da gainera. Baina, zoritzarrez, Debagoinean trena kendu ziguten orain dela 40 urte eta dagoenarekin konformatu behar.

Autobus tarifetara bueltatuz, erretiratu batzurekin topo egin nuen eguztenean odol emailetan, Bergaran, eta kexu ziren Bizkaian askoz ere deskontu hobeak dituztelako. Eibartik Bilbora joan-otorria esaterako, euro bat besterik ez dute ordaintzen nagusiek. Deskontu eta zerbitzu hobeak omen dituzte Bizkaibusekin.

Debagoienean kexak dira nagusi. Adibidez, Oñatiitik askotan esan digute linea gutxi da goela eta *transbordoak* egin behar dituztela ordu jakin batzutan kapitalera joateko adibidez. Hori gutxi balitz, ostiraleko *Goienkaria*-n era-biltzaile batzuen eskutitzeta zetorren: Gasteizrainoko bidaia askotan zutik egiten dutela zioten. Arraio garraioarekin! Diligentziak beste sasoi batekoak zirela uste nuen.

> **Anoeta. Diaz de Zerioren lesioarekin realzale eta futbolzale denok sekulako mina sentitu genuen derbian. Anoetako hainbat kalamidaderen portaera-rekin, berriz, lotsa.**

"**Garraio publikoa merkeagoa zela uste nuen. Euroaren kalte kolateralak omen**"

> **Behobia. Eguraldi bikaina izan zuten atzo Behobia-Donostia korritu zutenek. Ibarretik ere jende asko joan zen: 470 lagun inguru. Zorionak denei, bereziki lehen aldiz proba egin zutenei.**

debagoiendarrak kanpoan

Julen Zelaia > Oñati

"Zaila egiten zait Donostian oñatiarrez aritza, ulertuko ez didaten beldurrez"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
28 urte bete zituen egun berean deitu, eta telefono bidezko txantxa bat bezala hartu zuen gure deia hasiera batean Julen Zelaia (Oñati, 1980): "Koadrilan txantxetan ibiltzea gusatzaten zaion lagun bat zinela uste nuen", zioen. Donostian bizi da egun, eta hiriburuan oñatiarrez mintzatzea zaila egiten zaiola aitortu digu, "uler-tuko eznautean beldurrez-edo". Egun Loreak Mendian enpresarentako dihardu lanean.

Zein izan zen Donostiara joatearen arrazoia? Eta behin joanda, asko kosta zitzauzun bizitza berrira egokitzea?

Orain dela zortzi urte joan nintzen Oñatiitik. Hasiera batean ikasketak zirela eta etorri nintzen Donostiara, diseinu grafikoa ika-si dut-eta.

Egia esan behar badut, nire bizitza ez da hainbeste aldatu. Oñati eta Donostia artean, azken finean ez dago hainbeste ezberdintasun. Izan ere, herri txiki batetik hiri txiki batera -niretzat herri handi bat modukoa da Donostia- pasa naiz, besterik ez.

Nolakoa da zure egun normal bat Donostian?

Goizean goiz jaiki eta *Olivia* txakurra paseatzera ateratzen dut. Txakurrarekin paseatu ostean, kirol apur bat egin eta lanera joaten naiz. Eguerdian, itsaso dezentebadago, bainu bat hartzen dut, ahal den heinean olatu bat edo beste hartzeko. Lanetik irtetean, udaberria edo uda bada -arratsaldean oraindik ez bida ilundu-, beste bainu bat hartzen dut.



Egun Loreak Mendian enpresan diharduzu lanean. Nola hasi zinen?

Donostian *lurreratu* eta urtebetera hasi nintzen Loreak Men-diak-eko dendent lanean. Guztia diseinu grafikoa ikasten nentbilela hasi zen. Dendari gisa sartu nintzen egun erdiz, ikasketak ere aurrera eraman ahal izateko.

Eta azkenean bertan geratu naiz, eta diseinu lanetan modu zuzenean ez banabil ere, diseinu munduarekin inguratuta nabil: ehungintza, grafismoa, *packing-a* [ontziratze prozesuko diseinua]...

Nolako esperientzia ari da iza-teten?

Oso gustura nabil. Lagun onak egin ditut lanean; jaso dudan tratua etxekoia izan da, gertukoia.

Aisiaaldiari garrantzi handia ematen diozu. Zer egiteko ohitura duzu?

Lehen esan bezala, goizeroa joaten naiz *Olivia*-rekin itsasoa ikustera: baldintzak onak badi-za, uretarra. Bestalde, azkenaldian jo eta ke ari naiz pilatesarekin, asko gustatzen zait.

Zortzi urte pasa dira Oñati utzi zenuenetik. Zer botatzen duzu faltan? Bueltatzen zara inoiz?

Lagunak eta familia botatzen ditut faltan batez ere. Hala ere, ez naiz gura beste joaten euren-gana; zapatuero lan egiten dut eta domeketan nagikeria sartzen zait Oñatiira joateko.

Oñatiira bueltatzea, baina, posible ikusten dut. Are gehiago itsasoa hor bertan daukadala jakinda, ordu erdira.

Surfa eta pilates-a
Aisiaaldiaren *Olivia* txakurrarekin paseatu eta surfa eta pilatesa egitea gustatzen zaio Julen Zelaiai.

kale inuesta

Oñatin azokara joateko ohiturarik ba al duzu? Zer da bertan erosten duzuna?



Elias Zumalde
Langilea
Oñati



Jose Antonio Azpiazu
Langilea
Oñati



Maria Luisa Unamuno
Erretiratua
Oñati



Arantxa Egoskozabal
Langilea
Oñati

Asterotzen naiz. Gustatu egiten zait baserritarren produktuak erostea. Esan beharra dago, halere, lehenago baserritar askoz gehiago egoten zirela. Ni batez ere fruta eta barazkiak erostera etortzen naiz.

Lehen orain baino gehiago etortzen nintzen. Gaur adibidez, baserriko ogia erostera etorri naiz. Hona zatozenean, kontratzen zara oso produktu onak direla eta merezi duela. Halere, gu errezenera joaten gara.

Asterotzen naiz. Fruta, letxuga, tomatea, eta bestelako barazkiak erosten ditut azokan. Etxean semeak ere badu ortua baina asko apreziatzen ditut azokako produktuak eta beti etortzen naiz, urte askotan zehar.

Gustatzen zait azokatik bueltatxo bat ematea baina ez dut zapaturo egiten. Oñatiko produktuak erostea gustatzen zait, hala nola, gazta, edota frutak. Nahiago dut azokan erosi supermerketuetan baino.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Argi mozketa egunean udaltzainik ez bidegurutzean

Bergarakit idatzi digute, pasa den eguzteneko, urriak 29ko, argi mozketa dela eta. Herritar horrek adierazi digu herriko kaleetan argi mozketaren ondorioz udaltzainak zeudela trafikoa zuztzen, baina Ertzaintza ondoko bidegurutzean ez zegoela inor eta bidegurutzea arriskutsua dela auto asko zebiltzalako momentu horretan.

ARETXABAleta

> Aretxabaletatik Arrasatera joateko errepidearen egoera

Aretxabaletatik idatzi digute Arbzelai inguruko errepidearen egoera salatzeko. Autobide berriko lanak direla eta kamioi ugari pasatzen da egunero bertatik eta zikin ugari sortzen dute batez ere bertan dagoen hautsarekin; gainera azken asteetako eguraldi txarraren ondorioz izugarrizko putzuak sortzen dira bertan eta nahiko nazkagarri dago inguru guztia. Herritar honek adierazi digu, zikintzen dutenek noizean behin garbitu dezatela inguru hori.

ARRASATE

> Otalaria kale inguruan oinezkoendako biderik ez

Arrasatear batek deitu digu esanaz, Amaia antzokia inguruan egiten ari diren etxeak direla eta oinezkoendako espaloia kendu egiten dutela eta handik pasatzen denak errepidetik joan behar dueña. Arriskutsua iruditzen zaio herritar honi egoera, auto asko ibilten baitira bertatik.

Goienkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erradikore burua Edu Mendiñibar. Erredakzioa Arantzazu Ezkibel, Jasone Zubala, Miren Arregi Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitatea arduraduna Mirela Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzaran

EGOITZA NAGUSIA BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 02 Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalaria Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12 Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 77 18 54 Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 09 Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia

ASTELEHENKO GOIENKARIK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaleek adierazitako iritzien erantzukizunik.

zorroztalea



Markos Balentziaga

Prezioa

"G20 kide direnez gain –Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Italia–, oso litekeena da Espainia ere joatea, Frantzia EBko lehen-dakari gisa dagokion leku hari uzteko prest dagoelako. Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako gobernuburuak kanpaina diplo-matiko handia egin du azken bi asteotan leku bat lortzearren"

Berria > 2008-11-08



Joan dan zapatuan *Berriak* txalaparta ariñan zekarren barrixa, baña beste hedabide gehixenetan zalaparta gogorrian zetoren: Españako Gobernuburu dan Rodriguez Zapatero jauna Washingtonen izango da, han astegoienian zihar egingo dan juntan.

G-20 diñotse junta horri. Eta norbaitek uste badau haraño baba-janen bat edo egittera doiazela G20tarroko oso-oso oker dago... naziñoarteko finantza-sistemin aldatzera doiaz eta!

Kontua da Rodriguez Zapaterok ez zeukala Washingtonerako gorbittik, ezta kafia hartzeko be; baña joan-guria bai, eta galanta, gañera. A zer astiak egin dittuan gobernuburu espainiarak honi eta hari erreguka Bushek bere bihotzondo politikua beratu eta gorbitta bialdu zeixon, ze Washingtonen agintia Bushek dauka, Iñaki Gabilondori, eta *El País* egunkariko editorialistei ahaztu egi-tten bajate be.

Azkenian, baña, Sarkozy Frantiako eta Europar Batasuneko presidentiak aurkitu dau Rodriguez Zapatero Ameriketara eru-teko eria: Sarkozyk berak juntan Europar Batasunburuari dagokixon aulkixa erabiliko dau eta Franti-za estaduari dagokixona lagako dotsa Espainari. Txikixa baña mutil salaua da Nico, presidente frantziarra.

Dana dala, norbaittek uste badau Sarkozyren erabagixa Bush siestan zeguan bittartian hartuta daguala, oker dabil: jauna lotan be jauna da; baña hauteskundie-ten errepiblikarrek izen daben galtziaren zaratia be tamañakua izan da eta amore emon egin bihar....

Honañoko guztiak Interneten eta hemerotekatan aurkituko dittu begiratzeko gustua eta astixa dauzkan irakurliak.

Oindio ez txalaparta, ez zalaparta eta ez kalakarik ateratzen da: Franti-za Espa-nari egiten dotsan mesede politikuak –eta ez da makaleko mese-dia!– zer prezio dauka?

**"Kontua da
Zapaterok ez
zeukala
Washintongerako
gonbittik "**

**"Txikixa baña mutil
salaua da Nico,
presidente
frantziarra"**



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> BERGARA
Kalexka elkartea
arduratu da gizarte
heziketa zerbitzua
eskaintzeaz > 11



> ARETXABAleta
Kirodegia desmuntatzen
eta materialak bereizten
hasi dira, ondoren
eraisteko > 13



> ARAMAIO
Desadostasunak daude
udal gobernuaren eta
EAJren artean Plan
Orokorratik > 14

ARRASATE > BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

Herriaren esker ona hunkiturik jaso zuten lau baserritar omenduek

URTE ASKO LANEAN

Lau omenduak 60 urte
inguru dabilta azoka
plazara joaten astero

JARRAITZEKO GOGOA

Laurek azaldu zuten
azoka plazara joaten
jarritzeko asmoa, hori
baita "beraien bizitza"

BERTSOLARIAK

Oroigarria jaso
ondoren, bertsoak
abestu zizkieten

JASONE ZABALA > ARRASATE

Zapatuan herriko baserritarrek
azoka egin zuten bertako produktuekin Seber Altube plazan. Aurten goak baina, momentu hunkigarri bat izan du. Urtetan, gazte-gaztetatik azoka plazara baserriko barazki eta janari freskoak ekartzen eta herritarrei modu tradizionalean erosteko aukera ematen ari diren lau emakumeri esker on adierazpen bat egin ziotelako Udalaren partetik. Oroigarri bat eman zioten bakoitzari eta ondoren, Iñaki Apalategik eta Beñat Gaztelumendik bertsoak abestu zizkieten laurei.

URTE MORDO BAT LANEAN

Esker ona jaso zutenetako bat Ikerdo baserriko Maria Arana izan zen; bera zapatuko azokan produktuak saltzen egor zen. Esan zuen egun berezia izan zela zapatuko. "57 urte daramatzat produktuak saltzen azoka plazan, zortzi urte nituenetik", adierazi zigun; "seme-ek uzteko esaten didaten arren, ahal dudan arte hemen jarraituko dut", jarraitu zuen. Bidasoko Kontxita Berezibar izan zen beste omenduetako bat. Berak adierazi zuen, eskertzeko dela hainbeste urtetan azoka plazara joaten aritu ondoren esker ona jasotzea. "10 urterekin hasi nintzen plazan saltzen, eta badira 60 urte



OMENDUA Kontxita Berezibar, Gregori Markaide, Dominga Galdos eta Maria Arana oroigarria eskuetan dutela.

JOSETXO ARANTZABAL

lan honetan gustura ari naizela, eta ahal dudanera arte behintzat jarraitu egingo dut", esan zuen berak. Hirugarren omendua, Artzubiagako Dominga Galdos izan

zen. "Zortzi urte nituenetik ari naiz azokan produktuak saltzen; urte asko pasa dira baina halaxe jarraituko dut osasunak laguntzen didan bitartean. Eskertzeko da gutaz

gogoratu izana". Laugarren omendua, Artia baserriko Gregori Markaide izan zen. Bera ere oso pozik azaldu zen jasotako esker oneko ekitaldia, eta adierazi zuen "gerra

denboratik ari naiz azokan, 15 urte nituenetik. Dagoeneko 70 urte dira. Orain produktu gutxiagorekin joaten naiz azokara baina hasierako ilusioarekin".

Produktu freskoak, barietate handia eta salmenta onak izan ziren nagusi zapatuan

Azokan hamar saltzaile inguru egin ziren beraien produktuekin 09:00etik 14:00ak arte. Denetarik egin zen saltzeko: Ogia, barazkiak, txorizoak, llorek, sagarrak, azak.... Giroa polita izan zen goizean goizetik eta eguraldiak ere lagundu zuen lehen ordutik.

Produktuak saltzen egor zen saltzaileetako bat, Askasibar baserriko Rakel Perez de Arenaza izan zen. Azokan dagoen lehen urtea da aurten goa, eta pozik azaldu zen erosleek aldetik jasotako erantzunarekin. "Lehen esperientzia hau polita izaten ari da; nik baserri mundu hau gainera oso gustuko dut: produktua saltzea, bezeroekin harremanetan egotean...". Omendutakoei buruz ere eman zuen bere iritzia, eta adierazi zuen merezitako esker ona jasoko dutela lau baserritarrek, urte askotan zehar ari direlako beraien produktuak arrasatearrei saltzen, nahiz eguraldi ona edo txarra egin. Azokara hurbildutako erosleek ere beraien iritzia eman zuten. Horrela, Roque Larrañaga arrasatearrak adierazi zuen: "Baserriko produktuetan oso aditua ez naizen arren, gauza fresko ugari ikusi ditut. Postu ezberdinak ikusten ari naiz. Dagoeneko baina, erosi ditut txorizo batzuk", adierazi zigun berak.



Hainbat produktu izan ziren salgai zapatuan Seber Altube plazan. JOSETXO ARANTZABAL

ARTEA > JOXEAN IZAREN ERAKUSKETA

Izaren obra grafikoa ikusteko aukera dago

Egubakoitza ezkerro ikusgai da Joxean Izaren erakusketa, Maala kaleko Arregi dendantan.

Artistak 'solasaldi bat' moduan planteatu du erakusketa; paperezko impresio digitalean dihardu

JOKIN BEREIARTUA > ARRASATE

Joxean Iza artista bergararra-ren erakusketa ikusgai da Arre-gi dendantan egubakoitza ezkerro. Erakusketa informala da, kale-koa, bertatik paseatzen ari den herritarra harritzen duen horie-takoa. Iñigo Arregi dendako ardu-radun eta erakusketaren antola-tzaileak esan duenez, azaro oso-an zehar Izaren erakusketa ikusgai izango da Maalan.

GALERIAN BAINO 'ASKEAGO'

Joxean Iza (Bergara, 1961) Arre-giren dendantan galerian baino askeago sentitzen dela dio. Pariseko Arte Ederretako Eskolan ikasi zuen, eta eskola harten ikasi ahal izatea "zorte handia" izan zela gogoratzen du. Hala ere, "askok uste duenaren aurka", dio Iza, "Paris ez da hain hiri erroman-

tikoa, errealtitate oso latzak eza-gutu nituen han".

Arregiren "txokoan" zabaldu berri duen erakusketa "solasaldi bat" bezala planteatzen du Iza: "aretoa bera nahiko informala da, galeria baten seriotasunetik urrun dago. Hala, askeago senti-tzen naiz erakusketa hau eskain-tzerako orduan".

Bere ibilbidean zehar margo lan, eskultura eta grabatu klasi-koak egin ditu, baina egun mun-du digitalean murgilduta dabil Iza. Obra grafikoak egiten ari da: papera du euskarri eta impresio digitala langai.

ARREGI ARETOAREN ITZULERIA

Ez da Guggenheim, baina goi mailako artistak pasa dira ber-tatik. Iñigo Arregi orain dela bi urte inguru hasi zen bere Maala



Joxean Iza, egubakoitzean, erakusketa zabaldu aurretik.

JOKIN BEREIARTUA

kaleko dendantan formatu txikiko erakusketak antolatzen. Arregi bera ere artista izanik, mundu horretako hainbat lagun ezagu-tzen ditu; eta lagun horietako asko bere txokotik pasa dira. Hala, luzea da Arregiren txoko-an erakutsi duten artisten zerrenda: besteak beste, Juan Luis Goenaga, Aitor Lazarain, Ramon Perez eta Fernando Biderbostean -Gabonetan ere erakutsiko du bertan- lanak ikusgai izan dira azken hiru urteetan.

Hala ere, Iñigo Arregik azke-naldian ezin izan du bere txoko-an erakusketari antolatu. Iza-

ere, alde batetik bestera ibili da bere saltsan: erakusketa han, mintegia hemen. Eta ez hori bakarrik: publikoari begira eskulta-ura obra bat egiten ere ibili da, buru-belarri. Elorrioko Eroski-ren egoitza nagusian ipini du monumentua, hain zuzen.

Etenaldiaren ostean, baina, "kanpaina berri batz hasiera emateko gogoz" dabil Arregi. Eta artea herritarrari gertutik era-kustea helburu duen zikloa Joxe-an Izarekin hasiko da. Aukera paregabea, beraz, goi mailako artelanak gertutik eta doan jarraitu ahal izateko.



BIKARTE

Errusiar umeak hartzeko ekimena

Bikarte elkartea errusiar umeen harrera kanpaina antolatu du datorren udarako, umezurtzen etxeetatik datozen haurrak uda gurean pasa dezaten. Hala, dei egin die ibarreko familieei kanpainen parte hartzeko. Biher egingo dute bilera, Kulturaten, 19:00etatik aurrera. Harremanetarako telefono bat utzi du Bikartek: 605 70 90 22.

AZAROKO ESKAITZA

PRAKAK

- TIRO BAXUKO ZANGO-ESTUAK: **24,95€**
- TIRO ALTUKO ZUZENAK: **29,95€**
- MODERNOAK(MUTILAK): **29,95€**

Praka bat erosiz gero, kamiseta bat opari!!!

Zerkaosteta kalea 3 - ARRASATE

ARRASATEKO UDALA > OSOKO BILKURA

Indarkeriaren aurkako idatzia eta beste, azaroko osokoan

Garaia eta MURI laguntzearen beharraren gaineko eztabaida izan zen zinegotzien artean

U.M. > ARRASATE

Ohiko osoko bilkurako gaien artean batzuk eragin zuten eztabaida, tartean, diru kontuek. Hain justu, Garaia eta MUREn laguntza eskaerek eragin zuten eztabaidetako bat. Mondragon Unibertsitateak laguntza eskatu zuen eraikin berrirako. Eta Garaiak, berriz, kapitala handitzeko. Biak batuta, 500.000 euro inguruko dirulaguntza emango

die Udalak. Bada, EB-Zutik eta PPk horren kontra egin zuten gogora ekarrita beste bide batzuetatik jasotzen dutela bi erakundeek laguntzak eta zalantzan ipini zuten Garaiaren kudeaketa.

Bestalde, adierazpen institu-zionala onartu zuten, emakume-enganako indarkeriaren kontra, eta dei egin zuten azaroaren 25eko ekimenetan parte hartzeko: 19:30ean, Herriko Plazan.

> EUSKAL OHITURAK

Egubakoitz honetan gaztaina erreak jateko aukera izango da Herriko plazan

Euskal ohitura zaharrari jarraituz, gaztaina erreak dastatzeko aukera izango da egubakoitz honetan, hilaren 14an, Herriko plazan. Arrasateko Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatu du gaztai-na jana; arratsaldeko 5etan hasiko dira gaztainak erretzen. Anto-latzaileek Arrasateko guraso eta ume guztiak gonbidatu dituzte.

Pasa den egunean Herri Eskolan izan ziren gaztaina erreak jaten. Egurldia lagun izan zuten Bedoñabeko txikiek, eta hala, patiora irteko aukera izan zuten gaztainak jatera. Haurrak oso gustura ibili ziren gaztainak jan eta jan: guztira 75 kilo gaztaina jan zituzten. Ez da gaztina jana antolatzen duten lehen aldia, izan ere, zortzi urte daramatzate gaztina erre eguna ospatzen Bedoñaben. Helburua, txikieneik euskal ohiturak ikastea da. Heldu da, beraz, danbolinari eragin eta gaztina goxoak jateko ordua.

AED 25. URTEURRENA

Martinez de Lunaren hitzaldia, egunean

Euskarak mundu globalizatuan duen etorkizuna izango du hizpide Kulturaten

J.B. > ARRASATE

25 urte, mende laurdena bete du azaroan Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkar-te aitzindariak. Urte osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte dagoeneko baina ospakizun egitarauaren ekitaldi esanguratsuenak orain hasiko dira. Azaroan euskararen etorkizunaren gaine-ko hitzaldi zikloa antolatu dute. Zikloa irekitzearen arduraduna Iñaki Martinez de Luna izango da, eta *Hizkun-tza gutxituak mundu globalizatuan*. *Eta euskara zer?* deritzon hitzaldia emango du.

'EUSKARAREN SOZIOLOGOA'

Iñaki Martinez de Luna *euskararen soziologo* moduan aurkez genezake. Izan ere, Soziologian Doktorea den gas-teitzar hau euskararen erabil-pena neurtzeaz arduratzen den Sozionliguistika Kluste-reko sortzaileetako bat da.

Eta ez hori bakarrik, aipatu elkartearren lehendakari ohia, hamaika ikerketa sozio-linguistikoetan ibili da eta gaiaren inguruan idazlan eta argitalpen batzuen egilea da. Egun Euskal Herriko Univer-tsitateko irakaslea da eta Asmoz Fundazioko Hiznet Hizkuntza Plangintza gradu-ondoko eta Linguanet ikas-taroa zuzentzen ditu. Euskar-ran eta euskal hiztunen gizarte-an aditua, finean. Hitzaldia Kulturateko areto nagusian izango da egunean, hilak 13, 19:00etan hasita.

Euskararen etorkizunaz mintzatuko diren beste zen-bait aditu ere pasako dira Kulturatetik. Besteak beste, Jose-rra Gartzia EHuko irakasleak eta Jose Mari Velez de Mendizabal historiagile arra-satearrak egingo dute berba.



Iñaki Martinez de Luna.

AED



12-18 urte bitarteko nerabeak dira programa horren barruan sartzen direnak.

GOIENKARIA

GIZARTE ZERBITZUAK > GAZTEAK

Kalexka elkartea arduratuko da gizarte heziketa zerbitzuaz

Adingabeko artean arrisku faktoreen prebentzioa lantzeko orain dela
hiru urte jarri zuten zerbitzua abian; kale hezitaileak lanean dira ordutik

JASONE ZABALA > BERGARA

Hiru urte pasa dira Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik Ingurune Irrekiko Gizarte Heziketa Zerbitzua martxan jarri zela. Kontutan izan behar da horrelako programa batek epe ertain luze batera ematen dituela emaitzak. Idurre Amasorrain Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren arabera, aurrera pausuak egitearekin batera, programaren beharra ageria go ikusteko balio izan digu hasieratik hona egindako lanak.

KALEXKA ELKARTEA

Horregatik Bergarako Udalak beste hiru urtetarako zerbitzua ematea erabaki du eta Kalexka elkartea izango da zerbitzua aurrera eramango duen enpresa.

Bergarako Udalak jakutin da herriko 12-18 urte bitarteko gazteen gehiengoak kalean (taberne-

tan, Internet geletan, aterpeetan, lokaletan, parkean,...) denbora asko igarotzen duela eta gazte askok kalea bihurtzen dutela bere arazoen babesleku eta ihesbide. Horrela, kalea gazteen gizarteratze prozesuan eragile nagusi bat bihurturik, esparru hau prebentzio eta heziketa gune bezala erabiltzeko aukera moduan azaltzen da. "Urtetan adingabeko artean prebentzioa lantzeko esparruak osatzeko (ikastetxeak, gurasoak...) instrumentu bezala aurkezten da zerbitzua", adierazi digu Amasorrainek.

ARRISKU FAKTOREEN DETEKZIOA

Behar horri erantzuna indartzeko asmoz jarri zen Ingurune Irrekiko Gizarte Heziketa zerbitzua martxan, izan ere zerbitzuaren helburuen artean hauetan aurkitzen dira: ume, gazte zein nerabe-

ek bizi izan ditzaketen arrisku faktore eta egoeren detekzioa; hala nola, eskolan egokituz, eskola porrota eta eskola goizegi uztea, gizarteratzeko prozesu ez-egokiak izatea, drogen kontsumo goiztirrak... Eta arrisku egoeran egon daitezkeen adingabeen detekzioa. Horretarako kale hezitaileak daude lanean; beraiek dira gazte eta nerabeekin harremanak egin, eta erreferentzia eredu bat finkatzu beraiekin lan egiteko profesional egokienak. Kale hezitaileek Gizarte Zerbitzuekin etengabeko elkarlana dute, baita bestelako erakundeen ere. Azkenik aipatu, programa hau Bergaran martxan jarri zenetik gaur egunera, ibarrean beste herri batzuk ere zerbitzua ematen hasi direla, hala nola, Oñatin eta Arrasaten badaukate zerbitzua eta Aretxabaletan diagnosi fasean dago.

> AZOKA

Gabonetako artisau feriarako izena emateko epea luzatu du Udalak azaroaren 12ra arte

Bergarako Udalak azaroaren 12ko 13:30ak arte luzatu du 2008ko Gabonetako artisau feriarako izena emateko epea. Horretarako eskaria, feria arautzen duen baldintzen pleguari erantsitako ereduarekin aurkeztu beharko du eskatzaileak Bergarako Udal Erregistroan. Horretaz gain, baldintzen pleguari zuzenketa bat egin nahi dio Udalak. Gipuzkoako Eskulangintza Tradizional eta herrikoaren errola orokorrean inskrتابatua egotea ez da beharrezkoa izango.

> ZERGAK

Kioskoen, ibien eta taxien errezipioak ordaintzeko epea, urriaren 30etik abenduaren 30era izango da

Kioskoen, ibien eta taxien errezipioak ordaintzeko epea abenduaren 30era arte dago zabalik. Helbideratutako errezipioak, baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira. Helbideratu gabeko errezipioak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko dira eta ordainketa udaletxeko diru-bilketa zerbitzuan egin ahal izango da; kutxazainetan edo Internet bidez ordainketa egiterik ere badago (barra-kodedun errezipioa eduki behar da).

> HITZALDIA

Domingo de Iralari buruzko hitzaldia egingo du Miguel Angel Elkoroberezibarrek, hilaren 19an

Domingo de Irala, bergarar bat Mahomaren paradisuan izenburuaren hitzaldia egingo du Miguel Angel Elkoroberezibarrek azaroaren 19an, osoko bilkura aretoan 19:30ean.

Hil ostean izan beharrean, hil aurretik lortu omen zuen Domingo de Iralak paradisuan sartzea. Paraguaiko hiriburua den Asuncion "Mahomaren paradisua"-rekin parekatu zuten XVI. mendean, erregeari idatzitako gutun batean fraide batek halaxe deskribatu zuelako hiria Iralaren agintaldian. Gainbegiratu bat emango diote Iralaren bizitzari eta gurean duen presentziari.

> HITZALDIAK

San Joxepeko erretiratuen elkartea antolatuta, insomnioaren gaineko hitzaldia azaroaren 13an

Bergaran hainbat hitzaldi izango dira azaroan zehar. San Joxepe Erretiratuen Elkartea Bizikasi Debagoieneko bitartekaritza zerbitzuarekin batera *El insomnio y sus consecuencias* hitzaldia antolatu du.

Hitzaldia azaroaren 13an izango da, arratsaldeko seietaen Bergarako Miguel Altuna Institutuan. Hitzaldiari buruzko informazio gehiago jaso nahi duenak 943 76 93 94 telefonora deitu dezake eta Miren Errastigatik galdu.

> IKASTAROAK

Sorosle titulua eskuratzeko ikastaroan izena emateko epea azaroaren 16ra arte dago zabalik

Kirola Euskaraz egitasmoaren barruan eta Euskadiko Igeriketa Federazioarekin elkarlanean Uretako Sorosle titulua birziklatzeko eta Kanpo Desfibriladore Automatikoa erabiltzeko ikastaroa antolatu du kirol zerbitzuak. Formazio hauek EAEn egiten diren arren euskaraz egingo diren bakarrak izango dira. Debarrokoak direnek 40 euro ordaindu beharko dute eta ez direnek 60 euro. Uretako Sorosle titulua izatea da eskatzen dena. Izena emateko azken eguna azaroak 16 izango da eta gehienez 30 pertsonen eman dezakete izena.

> OHARRA

Zabalotegi eta Boluko auzotarren elkartekoek EAJren adierazpenei erantzun diente

Zabalotegi Boluko bizilagunen elkartekoek aditzera eman nahi dute "asko harritu" direla EAJ alderdiak herriko bi kale horietarako eginda dagoen bidearen proiektuaren gaineko eztabaidea berpiztean erakutsi duen interesa. Auzotarren elkartearren ustez, "gai horren gainean guztiz egia ez diren gauzak esaten ari da EAJ, alde eta kontra dauden artean liskarra sortzeko asmoz". Gaineratu dute "beti egon direla egoera hori argitzeko asmoz beharrezkoak diren azalpenak ematen, aurrera eraman nahi den proiektu horren beneficiako nondik norakoak Bergarako herriarrek jakin ditzaten".



Arexabaletako areto futbol taldeak Zubikoan jokatuko ditu partiduak.

GOIENKARIA

KIROLA > ZUBIKOAN

UDAren areto futboleko norgehiagokak, Oñatin

Zubikoa kirodegiko bi kantxetan jokatuko dituzte partiduak Aloña Mendiko areto futbol taldeek libre uzten duten egun eta orduetan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aretxabaletako Ibarra gunean egin behar dituzten berrikuntza lanak direla-eta, areto futbol partiduak Zubikoa kirodegian jokatzeko baimena eskatu du Aretxabaletako Udalak. Oñatiko Udalak baimena eman dio kantxa urdina eta berdea erabiltzeko, baina baldintza batzuk bete beharko dituzte. Alde batetik, UDAko taldeek herriko kirol taldeek partidurik ez dutenean jokatu ahal

izango dituzte euren norgehiagokak. Bestetik, Oñatiko taldeen partiduen egutegietan aldaketarik egingo balute, eta horrek Aretxabaletako taldeen ordutegietan era-gina izango balu, lehentasuna Oñatiko taldeek izango lukete.

Bestalde, Udalak hilero fakturako dio Aretxabaletako Udalari kantxaren erreserba. Hain zuzen ere, 32,65 euro ordainduko dituzte. Gainera, UDAko partiduetan instalazioetan eta kirol ekipa-

menduetan kalterik egingo balute, Aretxabaletako taldeak hartuko luke bere gain konponketako faktura.

ANTZUOLAKO PILOTARIAK

Antzuolako pilotalekua berritzeko lanak egiten dituzten bitartean, hango pilotariak Zubikoako frontoian egingo dituzte entrena-menduak. Era berean, eskuko eta palako partiduak Oñatin jokatuko dituzte.

> DEIALDIA

Urteko azken aurreko odol-ateratzea egubakoitzean

Oñatiko Odol Emaileen taldeak antolatzen duen odol-ateratzea egubakoitzean egingo dute, 18:00etatik 20:30era arte, Txantxiku Ikastolako geletan. Urteko azken odol-ateratzea abenduaren 12an egingo dute.

Egubakoitzeko eta abenduko odol-ateraldietan edonork parte har dezakeela gogorazten dute antolatzaleek. Lehen aldiz odola ematera doazenei galdeketa zehatza egingo die medikuak, eta arazorik ikusten ez badu odola emateko baime-na emango diete, eta odol-emai-le txartela jasoko dute.

> SALMENTA

Haur abesbatzen ziklorako sarrerak salgai kultura etxearen

Ganbara Txiki abesbatzaren bosgarren urteurrena dela-eta, hasi duten haur abesbatzen ziklorako sarrerak salgai dituzte kultura etxeko idazkaritzan eta sarreran bost eurotan.

Ganbara Txiki abesbatzak egin zuen lehen kontzertua zapatauan. Azaroko aste bukaera guztietan emanaldiak egingo dituzte, Leioako Kantika Koralak (hilaren 15ean); Donostiako Orfeoi Txikiak (hilaren 22an); eta Errenerteriako Orreta Abesbatzak (hilaren 29an). Saio guztiak Santa Ana antzokian egingo dituzte, 19:00etan.

ETXEBIZITZAK > SALMENTA

Otadui Zuhaztian eman barik dauden etxe tasatuak sustatzaileen esku utziko dituzte

Sanmartinalde S.L eta Aikia S.L enpresek saldu ahalko dituzte Udalak ontzat emandako prezio eta baldintzetan

M.B. > OÑATI

Kasablankako Urbieta eta Kurtiderixa guneetan egin gura dituzten etxe tasatuak eskuratzeko

ERRETIRATUAK > KULTURA ASTEA

Antzerki berria estreinatuko dute Pake Lekukoek

'Zenbat urte dako amamak?' antzelzana ikusteko sarrerak erretiratuen elkartean jaso behar dira

M.B. > OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkartean kultura astea antolatu dute gaurtik egubakoitzera arte. Besteak beste, irteera, kontzertua, hitzaldia eta Ikusi Makusia antzerki taldearen lan berria antolatu dituzte.

Zenbat urte dako amamak? da erretiratuen antzerki taldeak landu duen azken lana. Estreineko emanaldia egubakoitzean egingo dute, 18:00etan Santa Ana antzokian. Dena den, barikuko saioa erretiratuen dako bakarrik egingo dute. "Gabonetan herritar guztien dako emanaldia egingo dugu", esan digute Pake Lekuko batzordeko kideek.

Antzerki saiorako sarrerak erretiratuen elkartean hartu daitzeke, egunero, 18:00etatik 20:00etara arte. Santa Anan ez dute sarrerarik salduko.

JOLASAK ETA IPUINAK

Gaurtik hasita, egunero ekin-tza bat antolatu dute erretiratuek elkartean.

Musika izango da protagonista gaur. Hain zuzen ere, Olatz Berriako eta Pake Lekuko Aloña abesbatzak kontzertua egingo dute Santa Ana antzokian, 18:30ean.

Bihar, Jose Antonio Azpiazuak *Las mujeres vascas en la historia* izeneko hitzaldia egingo du erretiratuen egoitzan, 17:00etan.

Eguaztenean, gaztaiaren ibilbidea ezagutzeko irteera egingo dute, eta bi Oscar sari irabazi zituen *Pequeña Miss Sunshine* pelikula eskainiko dute, 17:30ean.

Eguenean, azkenik, astero egiten duten bingo joko saioa egingo dute. Bingo berezia 17:00etan hasiko dute.



Pake Lekuko Aloña abesbatza.

GOIENKARIA

PREZIO ETA BALDINTZA BERBERAK

Dena den, udal etxebizitzak tasatuak arautzeko udal ordenantzaren bigarren xedapenak dioen moduan, sustatzaileek euren kontura salduko dituzte etxeak, eta Udalak aurrelik onartutako prezio eta baldintzetan egingo dute. Gainera, eskatzaileak Udalak zehaztutako baldintzak bete beharko ditu; besteak beste, dirusarrerak hartuko dituzte kontuan. Sustatzaileak salmenta egin aurretik baimena eskatu beharko dio Udalari.

ARETXABAleta > HIRIGINTZA

Kiroldegia desmuntatzen eta materialak bereizten hasi dira, ondoren eraisteko

Enpresak hilabete beharko du eraikina botatzeko eta zorua garbi uzteko; Udalak abendurako lan horiek amaituta egotea eta urte hasieran kiroldegi berria eraikitzen hastea espero du

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta

Udal kiroldegi zaharra eraisteko lanekin hasi dira dagoeneko. Udalak baieztautu duenez, langileek joan den egunean ekin zioten materialak kentzeari. Hilabete inguru beharko dute kiroldegia botatzeko eta hango zorua garbi uzteko.

Jakinarazi du hainbat fasetan egingo direla lanak. Lehenik eta behin, egurra, beira eta metalak desmuntatu eta eraikina guztiz hustu behar dute; hormigoa eta igeltseroen materiala bakarrik geratu behar da han. Udalak gogorarazi du, horren harira, aipatutako material horiek guztik birzikla daitezkeela eta beraz, bereiztu behar direla ondoren bakoitziari dagokion tokira eraman ahal izateko. Esan bezala, eguenetik dihardute langileek

zeregin horretan.

Jarraian, teilitupeko eta aurreko fatxada kendu beharko dute. Udaletxeen azaldu dute lan



Eguenetik dihardute langileek kiroldegiko materialak desmuntatzen eta bereizten.

GOIENKARIA

berezia izango dela hori, matrialekin jarraitu beharreko prozesua araututa dagoelako. Hala, homologatuta dagoen enpresa batek desmuntatu eta aurreikusita dagoen tokira eraman behar dute, material horiek ere birzikla ditzaten.

Udal kiroldegi zaharra eraisteko lanak egitea Reciclajes y Demoliciones del Norte enpresari dagokio. Udalak esleipena deitu zuen uda partean eta esandako enpresak irabazi zuen. Esleipenaren zenbatekoa 102.563 eurokoa da.

2009KO HASIERAN

Kiro etxe berria noiz hasiko diren eraikitzen zehazteke dago oraindik. Jakina denez, udaletxeen badute dagoeneko hori eraikitzeako hasierako proiektua; lanak datorren urte hasieran has daitezkeela jakinarazi dute.

> ARETXABAleta
Munduko dantzen ikastaro trinkoa izena eman daiteke

Aste bukaeran izango den munduko dantzen ikastaro trinkoa izena eman daiteke oraindik. Interesatuek jai-kielkarte@yahoo.es helbidean edo 645 73 91 62 telefonora deitu behar dute. Plazak mugatuak dira. Ikastaroak 35 euro balio du langileendaiko eta 25 gainontzekoendako.

Greziako, Eskoziako, Israelgo eta beste herrialdeetako dantzak ikasteko aukera izango dute. Eskolak zapatuau, goizez eta arratsaldez izango dira; domekan, berriz, goizez bakarrik. Javier Muelasek eta Cucak emango dituzte.

> ARETXABAleta
Helduek antzerkia eta umeek pailazoak dituzte asteburuan

Arkupe kultura etxeko azaroko egitarauaren barruan, bi ekimen daude aurreikusita datorren aste bukaerarako. Bariku guztieta bezala, hilaren 14an antzerkia izango da Zaraia aretoan. *Sexo gratis* izeneko antzezlana eskainiko diete hara joaten direnei, 22:00etan. Antzezlan horretarako sarrerak hamar euro balio du.

Zapatuau, berriz, haur ikuskizuna egongo da toki berean. Etxeko txikienek Moronda eta Lironda pailazo-en emanaldia izango dute, 17:00etan. Bost euro ordaindu beharko dituzte ikuskizuna ikusi gura dutenek.

ESKORIATZA > GIZARTEA

Harrera ona izan dute zaharren egoitzaren gaineko hitzaldiek

Guztira 150 eskoriatzar inguruk parte hartu dute joan den astean Ibarraundi museoan egindako hitzaldian

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Herriko zaharren egoitzaren gaineko kontsultarako informazioa jasotzeko bi hitzaldi egin ziren joan den astean. Udaletxeen pozik daude hitzaldi horiek izan duten erantzunarekin. Guztira, 150 eskoriatzar inguruk parte hartu dutela esan dute; eguztenean 80 eta egunean 70. Gainera, interesa agertu dutela eta galdera asko egin dituztela ere nabarmendu dute.

Eguaztenean zuzendaritza-ko eta langileen ordezkariek, Aitor Urrutiak eta Amaia Lasagabasterrek, hurrenez hurren, berba egin zuten. Bakoitzak gai horren gainean duten ikuspegia eman zuen. Urrutiak gogora ekarri zuen lau urte daramazala egoitza berria egin behar dela esaten.

Lasagabasterrek, berriz, azpimarratu zuen egoitzaren kudeaketa eta zerbitzuak publikoak izan behar direla. Horren harira, arduratuta azaldu zen hango langileek izango dituzten baldintzakin. Gainera, patronatuak "300.000 euroko defizita" izatea eta Udalak orain arte izandako "utzikeria" salatu zuen. Gipuzkoako Diputazioak pribatizazioaren alde egin duen apustua ere arbuiatu zuen ELA sindikatuko ordezkariek.

EGOERA TXARRA

Horretaz gain, egoitzan dauden senideen izenean, Deiane Arrietak hitz egin zuen. Gaur egungo egoerarekin eta etorkizunean gerta daitekeenarekin arduratuta zegoen bera ere. Egoitza "oso egoera txarrean dagoela eta gabezi asko dituela" aipatu zuen. Horrekin batera, erabiltaileei behar duten arreta ez zaieila ematen salatu zuen.

Eguenean, berriz, prozesuan parte hartuko duten GSR eta LKS enpresen ordezkarien txanda izan zen. LKS kooperatibako arkitektura zuzendari Jose Oleaga ere egoitza berria eraikitzearen aldeko dela jakinarazi zuen. Berrizte lanak hainbat fasetan egiten direla eta horrek langileengana eta erabiltaileengana eragina edukiko duela adierazi zuen.



GOIENKARIA

Erretiratua Bolivian izan dira

Olazar erretiratuen elkarteak antolatuta, Bolivian izan dira joan den hilean 22 erretiratua. Han egon diren hamabost egunetan, besteak beste, Santa Cruz de la Sierra, Sucre, La Concepcion, Potosi, Sadar eta La Paz hiriburua bisitatu dituzte. Hala nola, Potosin urre, zilar eta zink harrobiak ikusi dituzten; Sucren gatz esplotazioa; Titicaca laku ezagunean izan ziren baita... Oso gustura ibili direla eta hango jendea oso jatorra eta umila dela jakinarazi digute erretiratuen elkartekoek.

ARAMAIO > PLAN OROKORRA

Desadostasunak udal gobernuaren eta EAJren artean Plan Orokorratik

EAJk uste du Plana atzeratuta dagoela kudeaketa eredua ez delako aproposa

Udalak, berriz, STOA enpresari egotzen dio Plan Orokorraren atzerapen guztia

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Aramaioko Plan Orokorra atzeratuta dago eta horrek liskarrak eragin ditu udal gobernuaren eta oposizioaren artean. Udalak STOA enpresari, Plan Orokorra garatzen ari den enpresari, egotzen dio atzerapena eta EAJk, berriz, erantzukizunak eskatu dizkio gobernuari.

Asier Agirre alkatea Goiena Telebistako *Magazinea* saioan izan zen egunean eta bertan kazetarien galderak erantzuteaz gain, oposizioarenak ere erantzun behar izan zituen. EAJko zinegotzi Txema Vilchesek gogor kritikatu du Plan Orokorraren atzerapena eta udal gobernuari eskatu dio batzorde bat eratzea Plan Orokorra garatzeko. Batzorde hori zabala izan beharko litzatekeela uste du Vilchesek, herritar guztiak ahotsa izan dezaten.

Oposizioari erantzunez Agirrek azaldu zuen ez dagoela batzorde berri bat eratu beharra. Agirrek uste du Plan Orokorraren gaia Hirigintza Batzordean lantzen denez, ez daukala



Plan Orokorraren atzerapenak ika-mikak eragin ditu Udalaren eta EAJ alderdiaren artean.

J.A.

zentzurik beste batzorde bat era-zeak.

Lur zatiketak ere izan ziren hizpide egunean. Oposizioak azken hilabeteotan egin diren lur zatiketetan kontraesanak ikusten ditu; kasu batzueta Diputazioaren, abokatuaren eta Udaleko idazkaritzaren txostenak kontrajarrriak direla dio Vilchesek. Gai honen inguruan honako iritzia dauka Asier Agirre alkateak: "Urte askotan Aramaion ezin izan dira lur zatiketak egin eta horrek ez dauka inolako zentzurik. Herritar askori arazo ugari sortu dizkio egoera horretan egoteak. Oposizioari

DATUA

1,2
MILIOI EURO

Urtea amaitu aurretik auzoetan azpiegitura lanak hobetzeko lan garrantzitsuak egingo dituztela iragarri du Udalak. Datorren urtera begira Etxaguen auzoan egingo duten lana azpimarratu du Udalak.

esango nioke kalteuekin biltzeko eta euren egoera ezagutze-ko. Horrela, beharbada, ulertu-

ko dute zergatik hartu ditugun erabaki horiek".

ABIADURA HANDIKO TRENA

Abiadura Handiko Trena eraikitzeako lanen kontra ere gogor egin zuen alkateak egunean, GOITBn. Agirrek uste du nahi duten moduan dabilzala Zabola auzoan eta ez dituztela ez auzotarrak ezta segurtasun neu-riak ere errespetatzen.

Abiadura Handiko Trena-ren harira gogoratu behar da Asier Agirre alkateak Gasteizko epaitegian deklaratu behar izan zuela herrian trenaren gai-neko galdeketa egitearren.

LEHENENGOKO SEKTOREA

Nekazaritza eta abeltzaintza bultzatu

Aramaion lehenengo sektorea bultzatzea da Udalaren asmoa. Izan ere, azken urteetan beherakada handia izan dute nekazaritzak eta abeltzaintzak. "Aramaion baserri ugari daude eta orain dela gutxira arte aramaioar asko baserritik bizi ziren. Hori pentsa ezina da gaur egun. Lehenengo sektoreari bultzadatxo bat eman nahi diogu eta hori lortzeko proiektu bat ere badaukagu esku artean", dio alkateak.

Herriko baserritarrekin eta lehenengo sektorearekin lotutako elkarteekin bildu dira eta elkarlanean lan egitea da Udalaren asmoa. Aramaioko produktuak sustatu eta bultzatu nahi dituzte modu horretara.

Epaiai irekita jarraitzen du eta datorren astean beste bi herri-tarrek joan beharko dute deklaratza. Asier Agirrek uste du ezker abertzalearen kontrako beste mehatxuetako bat dela bere kontrako epai hori: "Ezker abertzaleko hautetsien kontrako eraso bat gehiago da hau".

EUSKARA

Orain dela aste batzuk Udalak iragarri zuen euskararen kale erabileraren kale neuerketa egingo zutela azaroan. Bada alkateak iragarri zuen kale neurketa hori egin dutela dagoeneko. Abenduan emango dituzte ezagutzera azterketa horren emaitzak.

ANTZUOLA > BERDINTASUNA

Gizonduz programa onartuta sinadura bilketa egingo dute

Gizonezkoek sinatu ahal izango dute eskutitza azaroaren 16an arratsaldez eta 23an eguerdian

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Gizonduz programarekin bat egitea onartu du Udalbatzak. Programaren helburua da gizonegana zuzentzea, berdintasunean euren inplikazioa lortze-ko eta genero indarkeriak berdintasunak ezarekin duen lotura azaltzeko.

Horren harira hainbat eki-men egindo dituzte: Gizonen eskutitza udalbatzarrean onartu ostean, herriko elkartea, talde eta eragileei zabaldu; *Berdintasunak gizonago egiten gaitu*

lelopean pankarta eta lazo zuria udaletxeen ipini; azaroaren 16an eta 23an sinadura bilketa; eta azaroaren 25ean elkarretaratzea, 19:00etan plazan, emakumeenganako tratu txarren aurkako eguna dela eta.

ESKUTITZA

Gizonek eskutitzaren alde sinatu konpromisoa hartuko dute "sexismoak eragiten dizkigun kalteak gaintitzeko asmoz, berdintasuna oinarri duen gizarte eraikitzeko".

LEINTZ GATZAGA

12.000 euro mendi etxeak konpontzeko

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Gaztainuzketako mendi etxeak konpontzeko kreditu alda-keta onartu zuen udalbatzak urriaren 28ko osoko bilku-ran. Gatz museoa konpontze-ko zituzten gordeta 8.000 euro, baina egindako dirulaguntza eskaerei ezezkoa eman diote, eta laguntza horiek barik ezin dute konpondu gatz museoa.

Diru hori mendi etxeen teilituak konpontzeko erabi-liko dute orain; aurrekontu osoa 12.000 eurokoa da.

ELGETA



LARRAITZ ZEBERIO

Etxe tasatuek badituzte jabeak

Eguenean egin zuten aurrez izendatutako jabeak atzera bota ostean hutsik geratu ziren Uruburuko bost etxe tasatuen zozketa. Mikel Ormaetxea Olabe, Manuel Carmona Valor, Josu Etxaniz Irazabal, Mirza Sabir Baig eta Ana Jesus Carmona Valor dira etxeen jabeak. Guztira, 18 etxe tasatu dira Uruburukoak. 13 etxeren eskriturak joan zen hilean sinatu zituzten eta gainontzkoenak Gabonak baino lehen sinatzea da asmoa.

Kirola



> FUTBOLA

Mondrak irabazi egin du Hondarribiaren etxearen, Aloñak berdindu eta UDAk galdu >**20**



> ERRUGBIA

Euskadiko selekzioak 5-3 irabazi dio Kataluniako selekzioari Mojategin jokatutako lehian >**21**



> ESKOLA KIROLA

Arrasateko neska mutikoek saskibaloian jokatu zuten zapatuan Iturripen >**21**

LASTERKETA > MARATOI ERDIA

Lasterketa historikoan, gure ordezkari gutxiago

IRABAZLEAK

Chema Martinez
madrildarra eta Ana Casares nafarra nagusitu ziren

PARTE-HARTZEA

Aurtengo Behobia-Donostian inoiz baino lasterkari gehiago ibili dira: 16.300

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Historikoa izan da aurtengo Behobia-Donostia lasterketa. Historikoa izan da inoiz baino korrikalari gehiagok parte hartu due-lako, eta baita Chema Martinezek laugarren aldiz jarraian irabazi duelako ere. Madrildarrak orain arte inork egin ez due-na egin du Boulevardeko helmugan. Hala ere, esan behar da Martinezek ezin izan zuela eguna borobildu. Bere helburua Alber-to Juzgadok duen errekorra (59 minuto eta 19 segundo) hobetzea zen, baina madrildarrak 1:00:31ko denbora egin zuen helmugan.

Emakumezkoen mailan Ana Casares nafarrak samur irabazi zuen. Helmugan 1:13:43ko denbora egin zuen Casaresek, Ana Con-de bigarrenak baino lau minuto

gutxiago. Hirugarren Claudia Behobide sartu zen.

DEBAGOIENEKO ONENAK

Horiak lasterketak lehenengo postuei begira hartutako denborak dira. Ibarreko lasterkariei begiratuta, 464 debagoiendarrek hartu zuten parte lasterketan. Guztien artean azkarrena Ritzar Fernandez oñatiarra izan zen (1:07:03). Oñatiarrak ere ez zuen bere marka onena hobetzeko modua izan atzo (1:01:40).

Bigarren, beste oñatiar bat sartu zen: Arkaitz Letamendi (1:08:08). "Aurtengoa bosgarren aldia izan da; nire asmoa ordubete eta zortzi minututik jaistea zen baina ezin izan dut", adierazi zuen amaieran. Berarekin batera Asier Urdanpilletak hasi zuen lasterketa, baina Mirakruz pasatokoan utzi egin behar izan zuen lasterketa, min hartuta. "Lasterketa hasiera kaosa izaten da horrenbeste jenderekin. Beroke-ta ariketak egiteko denborarik ere ez dugu izan", zihoen. Gainera-tu zuen hilaren 30eko maratoia prestatzen dabilela.

Nesken mailan, Ixaka Egur-bide oñatiarra izan zen azkarre-na (1:19:58). Haren atzetik Lorea Zeziaga arrasatearra eta Leire Mugartza oñatiarra sartu ziren.

EGURALDIA, BERO ETA HEZE

Boulevardeko helmugara iritsi ziren debagoiendarren artean zegoen Julen Kortabarria oñatiarra: "Pozik nago egin dudan lana-rekin. Pentsatutako erritmoan egin dut korrika, eta azkenean uste baino hobeto ibili naiz; uste baino 15 segundo gutxiagoan egin ditut", azaldu zigun Kortabarri-riak. Lasterketako zati gogorrena Mirakruz gaina izan dela aitor-tu zigun. Gainera, eguraldia ez zen egokiena izan Kortabarriaren ustez: "Hezetasun eta bero asko egon da. Azkenaldian egin ditugun entrenamenduetan hotza izan da nagusi; hortaz, gaurko eguraldia ez da izan egokiena".


Ibarreko lehenak

GIZONEZKOAK

1. Ritzar Fernandez	1:07:03
2. Arkaitz Letamendi	1:08:08
3. Jose Ignazio Pelayo	1:09:11
4. Jose Graniel Urizar	1:09:50
5. Arkaitz Ruiz de Loizaga	1:10:00
6. Iker Larrea	1:11:18
7. Roberto Zurro	1:13:09
8. Asier Osinaga	1:13:14
9. Joxu Arana	1:13:29
10. Igor Lazcano	1:13:54
11. Iñigo Anduaga	1:14:35
12. Iker Sarabia	1:14:39
13. Jose Mari Anduaga	1:15:25
14. Xabier Iribekanpos	1:15:35
15. Iñaki Muxika	1:15:58
16. Jabi Ibarra	1:16:00
17. Iñigo Olañeta	1:16:19
18. Mikel Larrañaga	1:16:21
19. Jose Ramon Gutierrez	1:17:18

EMAKUMEZKOAK

1. Ixaka Egurbide	1:19:58
2. Lorea Zeziaga	1:30:35
3. Leire Mugarza	1:33:38
4. Oihana Perez	1:34:31
5. Itziar Aldekoa	1:34:34
6. Rakel Gutierrez	1:35:15
7. Sonia Davila	1:37:31
8. Monika Muñoz	1:37:46
9. Olatz Manuel	1:40:11
10. Agotz Iturbe	1:41:44



HELMUGA Ritzar Fernandez helmugara iritsi zen unean.

JOSETXO ARANZABAL

DATUA

16

GUTXIAGO


Iaz baino 16 lasterkari debagoien-dar gutxiago iritsi dira Donostiako helmugara. Aurtengo urtea historikoa izan da partaideei dagokienez, baina ibarreko kasuan ezin bera esan.



Chema Martinez heldu zen lehena Donostia helmugara, zaleen txalo artean.



Jatekoa eta edatekoa aurkitu zuten korrikalariek.




Asier Muruamendiaraz bergararra helmugan.



Masajeak hartzeko aukera izan zuten korrikalariek. Ilaran egon ziren masaje postuetan.



'Ayuda en accion' erakundeko kideak txipak kentzen.



Josu Arkauz presoaren izenean egin zuen korrika.



Behobia txikiko irteera hartzeko gertu. Guztira, 612 neska-mutiko lehiatu ziren adinaren arabera banatutako maila ezberdinetan.



16.000 korrikalarien motxitak, helmugan.



Chema Martinez
Madril

"Nire helburua garaipena lortzea zen, errekorra hobetzearena bigarren mailako helburua zen. Gainera, 12. kilometrotik 14.era haize-mina sartu zait, eta erritmoa motdu beharra izan dut".

Ritxar Fernandez
Oñati

"Chema Martinezek erritmo izugarria jarri du hasieratik, eta horrek lasterketa asko gogortu du. Gainera, toki batzuetan haizeak parez pare jotzen zuen, eta beste batzuetan bizkarretik".

Aitor Eraña
Bergara

"Nire semea laguntzera etorri naiz. Gaintzurizketaraino harekin etorri naiz, eta gero nire erritmoan heldu naiz helmugara. Hurrengo erronka maratoia izango da, eta hori beste kontu bat da!".

Arkaitz Letamendi
Oñati

"Gustura bukatu dut, azken lau urteotan 01:08:00tik jaitsi gura nuen, eta gaur lortu dudala uste dut. Dena den, denborak hobeteko haize gehiegi egin duela esango nuke".

Marije Velasco
Arrasate


"Eibarreko lagun bat laguntzera etorri naiz, hortaz lasai egin dut lasterketa. Erllojuari begiratu barik askoz errazago egiten da. Gainera, korrikalarien artean giro ezin hobea izan dugu".

DEBAGOIENDARRAK BEHOBIA-DONOSTIAN





Gurutze Gorriko boluntarioek lana gogotik egin zuten bukaeran.



Oihan Vegak DJ lanak egin zituen Boulevardean.

AIPATZEKOAK

612 neska-mutiko Behobia txikiaren bigarren edizioan

Minutu batzuetako atzerapenarekin hasi zen arren, hainbat herriatik etorritako 612 neska-mutiko lehiatu ziren Behobia txikian. Boulevardetik Kursaaleraiko ibilbidean ibili ziren, adinaren arabera maila ezberdinan banatuta.

Gaintxurizketako lanen ondorioz, bost metro gutxiago

Probako punturik gogorrenean, Gaintxurizketako mendatean egin dituzten lanen ondorioz, bost metro gutxiago izan zituen atzoko Behobia-Donostiek. Hain zuzen ere, mendatearen altitudea bost metro gutxiagokoa da: 87 metro-tik 82ra jaitsi dute.

Antolaketa azken urteotan baino hobea izan da

Helmugan bildutako kazetari, argazkilari eta kamalariek esandakoaren arabera, atzoko edizioaren antolaketa azken urteotako onena izan da. "Aurreko urteetan kaosa izan da nagusi helmugan, baina gaur askoz hobeto antolatu dute. Komunikabideek lana erosago egin dugu".



Roberto Zurro berigararra helmugan nekatuta, baina pozik.



Bergarako alkate ohi Victoriano Gallastegi lagunekin elkartu zen proba ikusteko.

"Proba egiten nuen bitartean, Maiderrekin eta Iñakirekin pentsatu dut askotan"

Askotariko istorioak daude Behobia-Donostian parte hartzen duten korrikalarien artean, eta guk horietako bat aukeratu dugu. Asier Osinaga eta Maider Osinaga senar-emazteek parte hartu zuten atzoko lasterketan. Asierrek askotan korritu du 20 kilometroko proba (eta beste asko gainera), baina Maiderrendako lehen aldia zen. Koadrilako afari batean bota zuten erronka, eta Maider eta Iñaki Guridi animatu egin ziren. Abuztuan hasi ziren entrenamenduak eginen. Ritzar Fernandezek jarri zizkien egin beharreko entrenamenduak, eta astean hiru aldiz entrenatu dute. "Batez ere, luzera ezberdinako entrenamenduak egin ditugu. Asteko egunetan norbere kontura ibili gara, baina aste bukaeratan biok elkarrekin entrenatu dugu", esan ziguten Maiderrek eta Iñakik.

Iñakik proba ezagutzen zuen (lau aldiz egin du), baina Maiderrendako estraineko lasterketa zen, eta helmugan oso pozik zegoen. "Ezin dut sinistu, baina helmugara heldu naiz. Asko gustatu zait proba. Iku modura ezagutzen nuen, urte askotan Asier animatzera etorri gara-eta. Baina barrutik ikaragarria da. Dena den, bero egin du eta azken kilometroko luzeak egin zaizkit", esan zigun.

Proban zehar une gogorrak izan zituela esan zigun: "Pasaiako portutik pasatzerakoan makaldu egin naiz, eta une gogorrak pasa ditut. Baina Iñakiren laguntzarekin indarberritu egin naiz. Bestalde, Miracruzea heldu eta Donostian zaudela ikustean, proba bukatzean dagoela uste duzu, baina azken jaitsiera nahiko gogorra egin zait".

Helmuagarra heldu zenean, Asier zuen haren zain. "Konfiantza nuen helmugara helduko zela, baina helmugan ikusi dudanean hunkitu egin naiz. Era berean, lasterketan nengoela behin eta berriz pentsatu dut Maiderrengan eta Iñakirengan. Nahiko arduraturatuta egin naiz proban. Dena den, iazko denbora 50 segundutan hobetu dut, eta gustura nago".

Gurekin berba egiten zeuden bitartean, etxeeko telefono deiak jaso zituen Maiderrek, eta Eneritz eta Malen alabek, proba telebistaz ikusi zutela esan zioten: "Aiton-amonekin utzi ditugu gaur. Baina, esan didate lasterketa telebistaz ikusi dutela". Iñakik ere esan zigun seme-alabak Nagore emaztearekin utzi zituela.

Osinagatarren etxean izango duten lehiari buruz galdezzean, barrez erantzun zigun Asierrek: "Bien arteko lehia egotea oso ona da". Agurtzrakoan, hurrengo urtean Behobia-Donostiarren 45. edizioan egongo direla esan ziguten.



Maider, Asier eta Iñaki, proba bukatu ondoren.

JOSETXO ARANTZABAL

DEBAGOIENDARRAK BEHOBIA-DONOSTIAN



Iñaki Pelaio
Oñati



Jabier Zelaia
Oñati



Oxel Erostabarre
Elgeta



Pepin Carmona eta Mª Jose Ibarrondo
Oñati

"Nire helburua 1:10:00tik behera egitea zen, eta lortu dudala uste dut. Bestalde, bukaerako 15 kilometroak bakarrik egin ditut, eta oso gogorra egin zait. Beste behin, zaleek oso ondo erantzun dute".

"Bi helburu nagusi nituen gaurkora-ko: alde batetik, Donostiako maratoirako entrenamendua egin gura nuen; eta beste alde batetik, 01:24:00tik jaitsi gura nuen. Bi helburuak bete ditudala uste dut".

"Lehen aldia da Behobia-Donostia egin dudala, eta egia esan, oso nekatuta nago. Gorputzean ditudan muskulua guztia gogortu eta mindu zaizkit. Proba nahiko gogorra dela iruditu zait".

"Elkarrekin egin dugu lasterketa, eta oso gustura bukatu dugu. Ez du eurik egin, eta haize apur bat egin duen arren, bukaerako kilometroetan bero galanta egin du, eta guk behintzat sufritu egin dugu. Laugarren urtea da Behobia-Donostia egiten dugula, eta hurrengo urtean errepikatuko dugula uste dugu, lasterketaren inguruan dagoen giroa aparta da-eta".

LETÉ arraindegia

BIDEKURUTZETAN
BERGARA
Tel.: 943 76 34 51

**UDA GOIENEKO
OSTERA**
2008 9.edizioa

Petti+Zura

DURANGO PLATERUENA KAFE ANTZOKIA
Azaroak 14, barikua, 22:00etan.
Sarrera 6 € aurretik 8 € bertan.

antolatzaldea
topagunea
BFA DFB
babesleak
bbk

emaitzak eta sailkapenak

ANTZUOLA			
3431 Mikel Santos Zelaieta	01:30:44	3525 Premin Sampedro Larrañaga	01:31:03
94 Iker Larrea Soraluze	01:11:18	3962 Iñigo Labayen Iraeta	01:32:17
332 Mikel Larrañaga Kortabarria	01:16:21	3973 Iban Vitoria Moral	01:32:18
1096 Mikel Montori Zabaleta	01:22:09	4050 Iban Aranguren Zubillaga	01:32:31
2339 Ion Gurutz Alberdi Mujika	01:27:20	4153 Javier Etxeberriartearen Arenaza	01:32:42
2999 Oscar Velarde Bernal	01:29:26	4512 Gorka Eguzabal Martinez	01:33:57
3392 Jon Kortabarria Arando	01:30:36	4623 Kepa Urra Guridi	01:34:18
5170 Cesar Miota Peña	01:35:50	4697 Oihana Perez Sagasta	01:34:31
5390 Petro Iglesias Fernandez	01:36:24	4739 Aitor Arregi Elorza	01:34:37
6200 Eneko Zabaleta Urretxa	01:38:34	4797 Alex Martiarena Arregi	01:34:47
6256 Modesto Caceres Martin	01:38:44	4901 Iñigo Xabier Azkarate Morras	01:35:00
6797 Olatz Manuel Ezenarro	01:40:11	4933 Alejandro Altuna Elortza	01:35:07
8862 Idoia Aranguren Fernandez	01:46:28	4948 Ramon Goñi Farrás	01:35:10
9447 Gorka Garitano Arregi	01:48:27	4972 Jon Ander Ormaetxea Agirre	01:35:14
9450 Estitu Otaegi Legorburu	01:48:28	4980 Rakel Gutierrez Bereziar	01:35:15
9452 Iosu Errasti Jauregi	01:48:28	5125 Asier Aguirre Larrañaga	01:35:40
10613 Enara Iglesias Fernandez	01:52:36	5475 Iker Zubia Kortabarria	01:36:41
11894 Eider Gallastegi Eguren	01:58:33	5673 Jose Luis Borbolla Jimenez	01:37:10
11979 Amaia Lazkano Garcia	01:59:01	5724 Asun Arana Altuna	01:37:18
12046 Izaskun Larrañaga Kortabarria	01:59:22	5732 Javier Ansoategi Etxebarria	01:37:19
13305 Juan Gabriel Urriategi Araiztegi	02:10:55	5736 Mikel Mondragon Balerdi	01:37:20
ARAMAIO			
1190 Aitor Arana Arexoleibea	01:22:43	5787 Iban Beltran de Guevara Alvarez	01:37:28
2179 Aitor Kortazar Alkotz	01:26:44	6129 Aritz Maillo Elorza	01:38:23
3746 Sofio Mateo Caceres	01:31:40	6532 Juan Manuel Galilea De Miguel	01:39:27
12983 Agus Palacios Giron	02:06:18	6544 Iñaki Jauregi Bidaburu	01:39:29
ARETXABAleta			
581 Mikel Zubiria Murguzur	01:18:56	6548 Koldo Altuna Idigoras	01:39:30
1065 Roberto Etxeandia Garziaetxabe	01:22:01	6584 Ander Barrena Madinabeitia	01:39:36
1471 Andoni Miguel Quintero	01:24:02	6604 Aitor Agirre Ortuzar	01:39:39
1676 Fran Miguel Quintero	01:24:50	6722 Asier Agirregomezkorta Vieira	01:39:58
1996 Jurgi Lopez De Arkaute Guridi	01:26:06	6756 David Amuchastegui Gonzalez	01:40:02
2186 Manu Cebrino Lozano	01:26:46	6841 Iñaki Goikoetxea Gomez	01:40:19
2427 Ion Urtaza Agirrezabal	01:27:36	6875 Luis Mari Azkargorta Belategi	01:40:25
2444 Ismael Vazquez Aguilar	01:27:40	7361 Ainhoa Murgoitio Luelmo	01:41:47
3051 Kepa Antxua Uribe-Etxebarria	01:29:36	7411 Iñaki Urrutia Garaiotanaria	01:41:56
3233 Unai Kerejeta Lopez	01:30:08	7636 Maria Jesus Velasco Garcia	01:42:38
3814 Jabi Garcia San Martin	01:31:51	7703 Jaberretegi Albisua	01:42:49
3957 Fernando Uribesalgo Iñurrategi	01:32:16	7857 Lander Lopez Kortabarria	01:43:17
3991 Jose Javier Irure Espin	01:32:23	7896 Una Ibai Ruiz De Azua	01:43:25
4263 Julen Zuazabeta Olabe	01:33:14	8041 Ignacio Beltrán De Guevara Berecibar	01:43:51
4278 Jon Zubillaga Urzelai	01:33:17	8168 Maiol Iparragirre Guenietxoa	01:44:16
5460 Ion Uribe Ocon	01:36:38	8223 Jonatan Atxa Bastardo	01:44:26
5484 Igor Letona Biteri	01:36:42	8309 Beñat Bergaretxa Muñoz	01:44:38
5486 Josu Atxaga Irizar	01:36:43	9024 Josu Urzelai Segura	01:47:03
6398 Jorge Davila Roman	01:39:08	9057 Mikel Elorza Zubizarreta	01:47:10
7160 Eriz Zumarraga Azkarate	01:41:12	9479 Ane Miren Arekolaleiba Biteri	01:48:32
7164 Ander Hernandez Akizu	01:41:13	9543 Oskar Zubiaq Cabañillas	01:48:45
7256 Roberto Negro Martinez	01:41:28	9759 Xabier Mendialdua Axpe	01:49:28
7512 Jon Torres Nuñez	01:42:14	9808 Ibai Bolinaga Diaz	01:49:36
7526 Imanol Luengo Gabarain	01:42:15	9902 Iñaki Galparsoro Markaide	01:49:58
7607 Roberto Azkarate Zabalo	01:42:30	10068 Julen Gonzalez Jimenez	01:50:33
8617 Maite Arkaiz Arenaza	01:45:45	10077 Egoitz Arzamendi Uramuno	01:50:34
8695 Mikel Mendiarietx Elexpuru	01:45:59	10269 Javier Reguero Carazo	01:51:17
9232 Leire Guenietxoa Mondragon	01:47:43	10291 Rafa Aranzabal Gisasola	01:51:21
9326 Xabier Arbulu Ugarte	01:48:05	10349 Miguel Mª Agirreurreta Agirre	01:51:35
10164 Oscar Martinez Remedios	01:50:53	10367 Iñaki Urtubia Egidazu	01:51:41
10235 Olalia Uribetxeberria Madinabeitia	01:51:10	10496 Eugenio Urcelay Amondarain	01:52:06
10410 Antxon Del Rey Galán	01:51:49	10498 Jose Mari Barrena Aramburu	01:52:06
10518 Juan Antonio Uribe Uriarte	01:52:12	11065 Mertxe Beltrán De Guevara Berecibar	01:52:45
10578 Maitane Lana Jauregui	01:52:30	11185 Begona Rodriguez Del Guerrero	01:54:59
10583 Aitor Bengoa Lopez	01:52:31	11223 Alaitz Perez De Arenaza Iturbe	01:55:12
10614 Asier Murgoitio Luelmo	01:52:36	11226 Iñaki Bengoa Madina	01:55:13
12141 Alexander Seiler Schwarz	01:55:46	11236 Ane Garcia Gabiria	01:55:15
12143 Javier Martinez Inchausti	01:59:46	11239 Iker Agirregabiria Beltrán De Gebara	01:55:15
12791 Jose Maria Etxebarrieta Lopez	02:04:34	11304 Amáia Urrutia Herrero	01:55:35
9176 Pedro Azkargorta Belategi	01:47:31	11307 Idoia Urrutia Herrero	01:55:35
10122 Anabel Aranzadi Martin	01:50:43	11515 Maialen Aranegi Murua	01:56:33
ARRASATE			
58 Jose Gabriel Urizar Murguitio	01:09:50	11610 Angel Abasolo Iturbe	01:57:05
219 Iker Sarabia Ugarte	01:14:39	11611 Mikel Illarramendi Zabaleta	01:57:06
278 Xabier Iribekanpos Zuazabeta	01:15:35	11767 Juan Maria Amilburu Oxinaga	01:57:58
423 Jose Ramon Gutierrez Zillarren	01:17:18	11837 Alba Jara Amilburu Martinez	01:58:18
593 Alberto Ozeta Mendiarietx	01:19:00	12174 Zaitz Errasti Goiti	01:59:57
635 Juan Luis Murgia Uribetxeberria	01:19:16	12436 Haritz Errasti Goiti	02:01:38
1055 Jose Garcia Oyarzabal	01:21:57	13091 Jose Mari Larrañaga	02:07:32
1095 Jon Aguirre Agiriano	01:22:09	13127 Asier Ovejero Prat	02:07:58
1100 Txus Goikoetxea Garralde	01:22:10	13477 Iñaki Ortega Arrieta	02:14:42
1103 Joxemari Gallastegi Etxebarria	01:22:11	13483 Josefa Mugica Elorza	02:14:48
1151 Javier Arconada Martinez	01:22:30	13731 Amaya Ovejero Prat	02:24:32
1212 Angel Delgado Iglesias	01:22:48	13821 Zigor Masip Agirre	02:40:28
1595 Jon Osinaga Astigarraga	01:24:32	14539 Edu Zabala Bilbao	01:34:02
1610 Unai Ugarte Beitia	01:24:35	15881 Juan Ignacio Bolinaga Alegria	01:37:43
1680 Enzo Gallardo Bolaños	01:24:50	15892 Luis Usatorre Aranzabal	01:18:29
1750 Ruben Ramos Romeo	01:25:05	15969 Iosu Errasti Balanzategui	01:37:56
1855 Eneko Urrizalik Jauregi	01:25:34	15939 Jesus Albistur Marin	01:48:44
2288 Raul Mendiarietx Atxa	01:27:10		
2328 Txomin Gallastegi Etxebarria	01:27:18		
2422 Iker Teixeira Apraiz	01:27:35		
2696 Sergio Cobos Fernandez	01:28:32		
2914 Josu Arkauz Arana	01:29:12		
3006 Mikel Larrañaga Telleria	01:29:29		
3089 José Ignacio Gatzñaga Bidaurreta	01:29:42		
3103 Juan Carlos Bengoetxea Arakama	01:29:45		
3276 Lorea Zeizaq Arrasate	01:30:15		
3449 Josu Zubia Ramos	01:30:48		
BERGARA			
63 Arkaitz Ruiz De Loizaga Sampedro	01:10:00	169 Joxu Arana Oregi	01:13:29
152 Roberto Zurro Usabiaga	01:13:09	267 Jose Mari Anduaga Elias	01:15:25
169 Joxu Arana Oregi	01:13:29	302 Iñaki Mujika Goikoetxea	01:15:58
3089 José Ignacio Gatzñaga Bidaurreta	01:29:42	3449 Josu Zubia Ramos	01:30:48
ONATI			
8785 Patxi Retolaza Mendikute	01:46:16	9645 Nestor Arana Arexoleibea	01:49:05
8820 Jaio Manzanedo Gabilondo	01:46:21	10262 Oier Garai Ibabé	01:51:17
8909 Daniel Balmori San Gil	01:46:39	10414 Carlos Alonso Rodriguez	01:51:50
8980 Iñaki Arizmendiarieta Belar	01:46:56	10522 Oier Larrañaga Uribetxebarria	01:52:13
9067 Jesus Mari Valgañon Gomez	01:47:13	11032 Pedro Etxaniz Gabilondo	01:54:12
ELGETA			
1091 Javier Aramburu Urdanoz	01:47:36		
9426 Javier Orbea Ascaso	01:48:25		
9431 Koldo Aranburu Goikoetxea	01:48:25		
9565 Iker Beistegi Ugarte	01:48:49		
9566 Jose Antonio Dorronsoro Agirrezabal	01:48:49		
9572 Iñaki Alberdi Araiztegi	01:48:50		
9573 Luis Maria Beistegi Garitano	01:48:50		
9662 Jon Zubala Puy	01:49:08		
9673 Iker Biadoli Etxaburu	01:49:11		
9795 Javier Borobia Martinez	01:49:33		
9963 Alfonso Ena Elustondo	01:50:10		
9964 Karlos Zangitu Alberdi	01:50:10		
9999 Yoana Gallastegui Eguren	01:50:18		
10017 Victor Jimenez Muñoz	01:50:21		
10059 Antonio Verguiza Nieto	01:50:30		
10061 Jorge Garin Alsua	01:50:30		

PREFERENTE > HONDARRIBIA-MONDRA

Bakoitzak dakiena ondo egiten duenean lortzen dira puntuak

Azkargortaren mutilak ondo kokatu ziren zelaian hasieratik eta serio jokatu zuten

HONDARRIBIA
0-2
MONDRA

JASONE ZABALA > BERGARA
Azken bi asteetako hobekuntza baiezatu zuen Mondrak Hondarrbiaren aurka Hondartzako zelaian zapatuak jokatu zuen partiduan eta irabazi egin zuen (0-2). Lehen minutuetatik taldea zelaian ondo ipinita atera zen, jokalari bakoitzak zer egin behar zuen jakinda.

PARTIDUAREN KONTROLA
Lehen 15 minutuetan aukera asko izan zituzten Andoni Azkargortaren mutilak. Hala, jokaldi on batetan Julen Herizek lehen gola egin zuen arrasatearrendako. Gutxira eta etxekoei erreakzionatzeko astirik eman gabe, taldeak prestatutako alboko sake baten bitartez, Herizek bigarrena egin zuen. Etxekoak ahalegindu ziren Azkargortaren mutilen joko ona mozten, eta



Murua partidu ona egin zuen. 77. minutuan Txonanek ordezkatu zuen zelaian.

GOIENKARIA

lehen zatiko azken txanpan hondarribirrek estutu zituzten arren, ez zuten aparteko arazorik izan. Bigarren zatian, Mondrak ondo kontrolatu zuen partidua eta mar-

kagailuko aldea handitzeko hainbat aukera ere izan zituen, Hondarribia goitik behera menderatuz. Urrezko hiru puntu lortu zuten arrasatearrek. Amaieran

Azkargorta entrenatzaleak argi zuen zein izan zen partidua irabazteko giltza: "Besteak beste, zelaian aurreko asteetan baino orden gehiago erakutsi dugu".

PREFERENTE > HERNANI-ARETXABAleta

Epaileak hartutako erabakiek hautsi zuten partidua

Lehen zatia orekatua izan bazen ere, Erikoren kanporatzeak eta epailearen erabakiek baldintzatu zuten partidua

J.Z. > BERGARA
Orain arte kanpoko partiduetan ondo zebilen UDA baina zapatuaren Hernanirik egindako bisitan esku hutsik itzuli ziren etxera. Igor Gordobil eta Igor Arenazaren mutilak (3-0).

Lehen zatian etxeakoak gogor atera ziren zelaira joko ona egin, eta UDAk ere lehen zatian ondo kontrolatu zuen partidua eta nahiko ondo jokatu zuen.

EPAILEAREN ERABAKIKAk

Bigarren zatian, aldiz, etxeakoak penalti jaurtiketa bat esker aurreratu ziren. Hemendik aurrera epaileak erabaki eztabaidagarriak hartu zituen. Erikokalera bota zuen. Hala eta guztiz ere UDAk aurrera begira jarraitu zuen eta aretxabaletarei egindako bi penalti argi ez zituen adierazi. Egoera horrek, UDA desegonkortu egin zuen eta etxeakoek markagailuko aldea handitu zuten erasoan egindako bi jokalditan.

Igor Arenazaren ustez, "Hernanirik oso talde fisikoa da joko aldetik. Guk norgehiagoka serioa jokatu dugu, berdinketa emaitza justuagoa izango litzateke, baina azkenean epailearen erabakiek tarteko ezin izan dugu punturik lortu".

PREFERENTE > REAL UNION-ALOÑA MENDI

Garrantzia handiko puntuatua Aloñak Irunen lortutakoa

Aloñak partidu ona jokatu zuen goian dagoen Iruneko taldearen aurka eta berdinketa baliotsua lortu zuen (0-0)

J.Z. > BERGARA

Partidu txukuna jokatu zuen zapatuaren Aloñak Real Unionen zelaian. Lehen zatian oso ondo aritu zen Josu Zubiaik zuzendutako taldea eta aukera batzuk ere izan zituen. Iruneko taldea ere garaipenaren bila atera zen zelaira baina oñatiarrek ondo eutsi zioten eta, puntu banaketarekin konformatu behar izan ziren bi taldeak (0-0).

PENALTA GELDITU

Etxekoek bi hegaletatik egin zituzten jokaldiak eta gol aukerak izan zituzten. Horietako batetan epaileak irundarren aldeko penaltia adierazi zuen, lehen zatia amaitzeko hiru minuti falta zirenean, baina Zabaleta oñatiarren atezainak geldiketa bikaina egin zuen.

Bigarren zatian, Zubiauren mutilak gehiago izan ziren, eta etxeakoek hegaletako jokoak ederki gelditu zuten. Aloñak aukera pare bat izan zituen, baina azkenean husnako markagailuarekin amaitu zen partidua eta Aloñak puntu bat ekarri zuen etxera: kontuan izanda datorren astean Mondraren aurka etxean galdu duen Hondarribiareni bisita izango dutela Azkoagainen, puntu garrantzitsua da.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Pasajes	19	9
2. Tolosa	18	9
3. Real Union	16	9
4. Hondarribia	16	9
5. Hernani	15	9
6. Idiazabal	15	9
7. Aretxabaleta	14	9
8. Berio	14	9
9. Trintxerpe	14	9
10. Zumaiako	13	9
11. Aloña Mendi	12	9
12. Ondarroako Aurra	12	9
13. Mondra	11	9
14. Euskalduna	9	9
15. Amaikak Bat	6	9
16. Astig. Mundarro	6	9
17. EHU Vasconia	5	9
18. Anaitasuna	4	9

Emaitzak

Anaitasuna-Pasajes	2-3
EHU Vasconia-Berio	0-2
Real Union-Aloña Mendi	0-0
Hondarribia-Mondra	0-2
Ondarroako Aurra-Tolosa	2-1
Amaikak Bat-Astig. Mundarro	2-1
Zumaiako-Idiazabal	2-2
Hernani-Aretxabaleta	3-0
Trintxerpe-Euskalduna	3-3

Hurrengoa

Pasajes-EHU Vasconia	
Berio-Real Union	
Aloña Mendi-Hondarribia	
Mondra-Ondarroako Aurra	
Tolosa-Amaikak Bat	
Astig. Mundarro-Zumaiako	
Idiazabal-Hernani	
Aretxabaleta-Trintxerpe	
Euskalduna-Anaitasuna	

BESTELAKOAK

LEHENENGOKO ERREGIONALA	
BTLS-Eibartarrak	2-1
Aretxabaleta-Antzuola	2-1
Mondra-Urola	1-5
Lazkao-Bergara	0-0

BIGARREN ERREGIONALA

Bergara-Urkia	4-1
---------------	-----

GAZTE MAILAKO EUSKAL LIGA

Bergara-Leioa	3-3
Aretxabaleta-Amorebieta	3-1

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Zumaiako	0-1
----------------------	-----

LEHENENGOKO MAILAKO GAZTEAK

Aretx.Arizmendi B-Bergara	8-0
Ilintxa-Mondra	2-1

OHOREZKO KADETEAK

Zumaiako-Aloña Mendi	3-2
Bergara-Aretx.Arizmendi	4-5
Zarautz-Arrasate	3-1

LEHENENGOKO KADETEAK

Bergara-Arizmendi	4-5
Aretxabaleta B-Aloña Mendi-	8-0

KADETE TXIKI

Touring-Arrasate	2-1
------------------	-----

OHOREZKO INFANTILAK

Aretx. Arizmendi-Bergara	5-1
--------------------------	-----

LEHENENGOKO INFANTILAK

Aloña Mendi-Urkia	11-1
Elgoibar-Arrasate	6-0

INFANTIL TXIKI

Zarautz-Arrasate	0-1
Bergara-Aretxabaleta B Arizm.	0-0

EMAKUMEZKOEN LIGA

Aloña Mendi-Arizmendi	2-3
Arizmendi-Elgoibar	1-0
Mondra	(Atsedena)

EMAKUMEZKOEN F-8 KADETEAK

Aloña Mendi-Intxaurdi	1-6
-----------------------	-----

ERRUGBIA > PIRINIOETAKO EMAKUMEZKOEN TXAPELKETA

Erritmo falta izan zuten jokalariek

Azkeneko minutuetan Kataluniak bi entsegu transformatzeko aukera izan zituen

Mojategin egon zen zapatuan Spainiako selekzioko hautatzaile den Roberto Bourdet

EUSKADI
5-3
KATALUNIA

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE Pirinioetako Lan Elkartearen Emakumezkoen Nazioarteko txapelketak ikusminia piztu zuen errugbi zaleen artean; horren adibide da, lehia ikustera Spainiako hautatzailea etorri zela. Baina, ikusminak ez zituen zaleak asebete. Erritmo bariko norgehiagoka izan zen zapatuan Mojategin Euskadi eta Katalu-

niak jokatu zutena. Lehenengo zatian Euskadiko Isabel Rodriguez jokalariak sartutako entseguari esker, 5-0 aurretik jarri zen etxeko taldea. Atsedenaren ostean, lehiak berdintsu jarraitu zuen. "Baloieren jabetza izan dugu baina jokaldiak bukatzea falta izan zaigu", esan zigun Ines Etxegibel Euskadiko selekzioko entrenatzaileak.

AZKENeko MINUTUAN, AUKERA
Kataluniak azkeneko minutura arte izan zuen lehia irabazteko aukera. Meritxel Urbiolak transformatutako entseguak 5-3 jarri zuen markagailua. Gero, beste bi transformazio egin eta 5-6 irabaz-



Euskadiko jokalari bat baloiarekin, aurkariei ihes egin guran.

JOSETXO ARANTZABAL

teko aukera izan zuten kataluniarrek baina ezerezean geratu ziren jokaldiak.

ENTRENATZAILE BERRIA

Etxagibelen lehen partidua izan zen zapatuko: "Orain arte Kataluniako taldea eraman izan dut. Nire asmoa, taldeari norabide berri bat ematea da eta uste dut ondo hasi garela".

Etxagibeak esan zigun apirila inguruan jokatuko duten Spainiako lurraldleen arteko txapelketarako prestatzen dabilera. "Jokalari gazteak sartzea da nire asmoa", gaineratu zuen. Arrasatearrak selekzioan noiz ikusiko ditugun galdetuta, laster ikusiko ditugula esan zigun. Horren harira, Joxe Miguel Galdos Euskadiko selekzioko kirol zuzendariak esan zuen Arrasaten lan ona dabilzala egiten eta laster egongo dela selekzioan Arrasateko jokalariren bat.

Nesken errugbiaz berba egin zuen Galdosek; ahul dagoela eta indartu beharra dagoela azpimarratu zuen. "Orain dauden jokalariei gazteak gehitzea lortu behar dugu", adierazi zuen Galdosek lehia amaieran.

"Mojategin egon dira Spainiako selekzioa osatzen duten jokalari gehienak, % 80a"

Roberto Bourdet argentinarrak du Spainiako nesken errugbi taldearen ardura. Zapatuan Mojategira eterri zen, Euskadi eta Kataluniako nesken nondik norakoak ikustera: "Spainiako selekzioan jokatzen duten neska gehienak, %80a, Euskadi eta Kataluniakoak dira. Gainontzekoak, Madril eta Andaluziakoak direla esan daiteke".

Bourdeti ez zitzaison asko gustatu zapatuan ikusitako. "Erritmo barik jokatu dute neskek. Nabaritu da oraindik ez daudela sasoi betean", gaineratu zuen. Orain, datorren urtean jokatuko duten Europako txapelketarako dabil osatzen taldea. "Urtarrilean Eskozian jokatzeko gonbita jaso dugu eta otsailean, osteria, Inglaterraren aurka jokatuko dugu. Horiek lagun arteko partiduak izango dira. Nire nahia Europako txapelketarako taldea osatzea izango da", azaldu zuen Bourdetek.

Pirinioetako Lan Elkartearen Emakumezkoen Nazioarteko txapelketan, Estatuko selekzioez gain, orain arte Frantziako selekzioak ere jokatu izan duela txapelketa argitu zuen Bourdetek; baina, aurten ezin izan dutela eterri esan zuen. Nesken errugbiaren egoeraz galdetuta, azaldu zuen egoera ez dela ona: "Egoera ahula da, baina ez neskena bakarrik, baita mutilena ere. Lortu behar duguna da, jokalari berri gehiago sartzea eta modu horretan errugbia indartzea", azaldu zuen hautatzaileak.



Roberto Bourdet.

ARANTZAZU EZKIBEL

> ESKUBALOA
Berdindu ondoren, Ford Mugarrak erdiko postuei eusten die

Sucesores de Agirre talde gas-tietzarraren aurka 28-28 berdindu zuen Ford Mugarrak zapatuan Musakolan. Modu horretan, Euskadiko txapelketako sailkapeneko erdiko postuei eusten die Edu Organen mutilek.

Arrasateko taldea sailkapeneko 8. postuan dago, bost punturekin. Orain arte bi lehia besterik ez dituzte irabazi arrasatearrek; galdu osteria, hiru egin dute. Datorren astean Lea Corazonista-sen aurka jokatuko du Ford Mugarrak. Sailkapenean, atzealdean dagoen taldea da.

LETAMENDI
1923~TIK TXANTXIKUARRAK JAZTEN

LEINTZ BAILARA

Eskarmen tuz urri, baina talentuz lepo Leintz bailaran

ZAZPI PARTIDU Zapatu goizean Arrasateko Iturriko kirolegian saskibaloiko zazpi partidu jokatu ziren

AZKENA Aste honetan saskibaloiko azkenengo jardunaldia jokatu dute; hurrengo astean, futbola

ENTRENATZAILEAK Gaztetxoak gogo biziz animatzen dituzte eta aurrera jarraitzeko indarrak ematen dizkiete

AMAIA TXINTXURRETA > ARRASATE
Leintz bailarako bosgarren eta seigarren mailako gaztetxoek saskibaloiko laugarren jardunaldia jokatu zuten zapatuan Iturriko kirolegian. Goizean guztira zazpi partidu egin ziren: bost mutilenak eta bi neskenak. Eta gaztetxoek saskibaloiko maila ona erakutsi zuten.

San Martin Herri Eskola eta Gazteluondo 5 nor baino nor ibili ziren kantxan. Mutikoak izerditan blai bukatu zuten partidua horrenbeste saskiratze egin ondoren. Azkenean San Martin H. E. argitasunez nagusitu zen 17-6ko emaitzarekin.

Bestalde, San Viator 6 eta Gazteluondo 6 taldeek ere neurri zituzten indarrak. Entrenatzaileek animo oihuak igortzen zizkieten beraien gaztetxoel, izan ere, modu horretara gaztetxoak indar gehiagorekin jokatzen dute. San Viator 6 izan zen garaile 12-9ko emaitzarekin. Hala ere, jokalarien helburu nagusia ez da irabaztea, baizik eta eskola kiroletan parte hartuta ondo pasatzea dute xede.

Animatzen jende askorik ez bazegoen ere, kirolegi kanpotik entzuten ziren jokalariei bidaltzen zizkieten animo garrisak. Gurasoak, nola ez, bertan egon ziren seme-alabak nola jokatzen zuten ikusteko. Eta partidu amaieran, aita-ama asko kirolegi kanpoan zueden umeak zoriontzeko.

Zapatukoa saskibaloiko azkenengo jardunaldia izan zen eta hurrengo astean gaztetxoek futboliari ekingo diote gogotsu. Ez da emoziorik faltako orduan ere.



San Martin H.E. Jon, Jon, Joseba, Jokin, Gillen, Jon Ander, Iker, Jon eta Manex dira taldeko jokalariak.



Gazteluondo 5. Alexek, Andonik, Ikerrek, Elederrek, Ibaik eta Unaik osatzen dute taldea.



San Viator. Ander Ezenarro entrenatzailea, Oier, Julen, Julen, Julen, Josu, Unai eta Oier jokalariekin.




Gazteluondo 6. Jon, Maialen Alkorta, Ander, Julen, Andoni, Danel, Mikel, Aitor, Jon eta Iñaki dira taldekoideak.


GUSTATZEN ZAIZUE SASKIBALOIA? ZERGATIK?




Gillen eta Jon
San Martin H.E.



Ander eta Aratz
Gazteluondo 5



Julen eta Oier
San Viator 6



Aitor eta Andoni
Gazteluondo 6

"Baloia saskian sartu behar delako gustatzen zaigu saskibaloia" azaldu digute Gillen eta Jonek. Gainera, baloia eskuetan eramatea, hankarekin eramatea baino errazagoa dela ere adierazi digute. Eta ondo pasatzen dutela gaineratu dute, baina "importanteena parte hartea da".

Saskibaloian jokatzen ondo pasatzen dutela eta disfrutatu egiten dutela aditzera eman digute. "Baloia saskiratzea asko gustatzen zaigu" esan digute. Horrez gain, hau ere esan digute: "Taldean jokatzen den kirola denez, eta horretarako taldeko lana egin behar denez, ere atsegin dugu saskibaloia".

Oierren kirol gogokoena da saskibaloia. "Mateak egitea asko gustatzen zaigu, baina ezin ditugu egin kanastak oso goian gelditzen zaizkigulako oraindik". Gainera, "eskola kiroletan ez digute uzten materik egiten" aitorti digute bi gaztetxoek. Hala ere, gogo handiz jokatzen dutela diote.

Saskibaloia futbola baino gehiago gustatzen zaiela adierazi digute. "Futbolean saskibaloian baino korrika gehiago egin behar da, eta guri horregatik gustatzen zaigu gehiago saskibaloia". Gainera, "errazagoa da saskiratzen bat egitea futbolean gola sartzea baino".




> GANBARA TXIKI

Ganbara Txikik jaialdi batekin eman die hasiera V. urteurreneko ospakizunei > **24**



> KONTZERTUA

'Norman' eta 'Deadstring Brothers' taldeek kontzertua eskaini zuten Oñatiako Gazteleku > **24**



> ELKARRIZKETA

Bergarako Belcebues taldeko kideekin izan gara 'Infer' izeneko diskoaren gainean > **27**



ANA MOURA Fado abeslariak eta taldekideak Amaia Antzokiko eskenatokian. Publikoak ere hartu zuen parte emanaldian, txaloekin abestiak lagunduz.

JOSETXO ARANTZABAL

Fadoaren esentzia publikoari helarazten jakin zuen Mourak

Fado tradizionalak eta musikalak abestu zituen Ana Mourak zapatuan Arrasaten

'Guarda-me a vida na maio', 'Aconteceu' eta 'Além da Saudade' diskoak abestu zituen

MIREN ARREGI > ARRASATE

Portugaleko musikaren espediotorik ezagunena da Fadoa. Fadoak, bizitzako une gogorrak abesteko artearen bitartez espresatzen ditu. Nostalgia, malenkonía, tristura, frustrazioa edota fatalismoa bezalako sentimenduek, fadoa bere adierazgarritasunik gorenenera eroaten dute.

Sentimendu horiek guztiak erraz atzman zitezkeen zapatu iluntzean Arrasateko Amaia Antzokian Ana Moura fado abeslari ezagunak eskaini zuen kontzertuan. Aretoa erdi beteta eta oraindik garaiz iristearen bertu-

teak bere egin ez dituen herritarrok sartzen ari zirela, Ana Moura fado abeslariaren dotoreziak eta haren ahots ikaragarri bezain hunkigarriak aretoa bete zuten, bi gitarra klasikoren eta Portugaleko gitarra baten ezinbesteko laguntzaz.

Lehen hitzak euskaraz egin zituen Ana Mourak: "Eskerrik asko" garbi batekin hasi zuen saioa. Baina ez zen hor amaitu euskaraz mintzatzeko ahalegina, izan ere, bukaera aldera, "gabon" hitza baliatuz, kantuan ipini zituen bertaratutakoak. Horrekin, oraindik norbait

dudan bazegoen, erabat poltsikoratu zuen Amaia Antzokian bildutako publikoa.


FADOAK, PATUA OINARRI

Fadoak, patua adierazten duen latinezko *fas*, *fatum* hitzean du jatorria. Jatorri ilun horretatik abiatuta, Ana Mourak abestu zuen ezinezko maitasunaz, maitasun bukatuaz, patuaz, malenkoniaz... baina eskaini zituen baita ere abesti itxaropentsuak, alaiak eta etorkizun hobe batzen esperoia islatzen zutenak. Azken finean, fadoaren oinarri nostalgiaz beterikotik, erritmo aldaketa sakonak era-

biltzera pasatu zen Moura zapaturiko kontzertuan. Fado abeslariaren ahotsa izan zen kontzertuko transmisio biderik indartsuena, baina, bi gitarrak eta Portugaleko gitarrak ere protagonismo handia izan zuten.

FADO ETXEEK PRESENTE

Mourak, bere hasierak ere izan zituen gogoan, publikoari jakinarrazi zionean, *Fado etxeak* deiturikoetan ekin ziola ibilbide musikalari. Hala, gitarra soinuekin eta ahotsa (mikrofono barik) erabiliz eskaini zuen abesti bat, *fado etxeako* abesteko modua omenduz.



gizarte ekintza

hezkuntza

OLARGO AMANDREA ZERUAN ZER BERRI?

Bada, hori guztia bizitzeko
aukera duzu orain

Zientziaren kutxaGuneko
Planetarium berrian, Donostian

paregabea eta ikusgarria,
benetan, bere Super High
Definition sistemari esker

943 012 478
www.miramont.org



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**



3.KONTZERTUA // ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

azaroak
14
E G U B A K O I T Z A
22:30

SARRERAK ETA ABONUAK //
 SALGAI DAUDE:
 1> GOIENAKO EGOITZETAN
 2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
 3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
 ABONUA 25 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 18 EURO

KAMisetak //
 SALGAI DAUDE:
 1> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
 2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN

KAMISETEN SALNEURRIA: 1> 12 EURO 2> 22 EURO 3> 30 EURO

INFORMAZIO GEHIGORAKO WWW.DANBAKA.COM

LOS VIERNES AL RON
 ANTZUOLA

BITTER HONEY
 ARRASATE

ARMY
 ZORNOTZA

BRANKAN
 BERRIZ-MUTRIKU

DANBAKA)))
 III. MUSIKA LIZHI ETA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTAILEA

 PREST
 Gipuzkoako Foru Aldundia











 Kafe Antzokia Espalola Elgeta

ANTOLATZAILEAK

GURE TALDEAK...

Belceblues



Argazkian, Asier Elortza, Ibon Larrañaga eta Oihan Vega.

G

"Gure musika batez ere gitarra elektrikoan oinarritzen da"

Aitor Elortza (ahotsa), Ibon Larrañagak (gitarra-jotzailea) eta Oihan Vegak (bateria-jotzailea) osatzen dute Belceblues taldea

'Infer' diskoa Bergarako Xarti&Aimar estudioetan grabatu dute eta Gaztelupeko Hotsak diskotxeak argitaratu die

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Asier Elortzak (ahotsa), Ibon Larrañagak (gitarra-jotzailea) eta Oihan Vegak (bateria-jotzailea) osatzen dute Belceblues talde bergararra. Disko berria grabatu dute, eta eurenkin egin dugu berba lan berriaren ingurukoak ezagutzeko.

Infer diskoa kaleratu duzue. Nolako diskoa da?

Izenak dioen bezala, infernuko bluesa egiten dugu; hau da, blues indartsua, soinu sendoarekin eta modernoa. Gure soinua hainbat estilo nahastean sortzen dugu: besteak beste, bluesa, jazza, countrya, metala eta funkya. Gainera, gure kantuetan hiru edo lau ahots entzun daitezke abesten, eta hori ezaugarri berriotailea da. *Infer* izenburua jarri diogu, diskoa garaia baino lehen infernura joaten direnei eskaini diegulako. Bereziki Bergarako Infernukua tabernako Jabiri.

Non grabatu duzue eta zenbat denbora behar izan duzue?

Bergaran grabatu dugu Xarti&Aimar estudioetan eta denera lau hilabete eman ditugu lanean. Hasiera batean azkarrago egiteko asmoa genuen, arazoak izan genituen eta nahi baino gehiago luzatu zitzaiungo. Bainapozik gaude emaitzarekin.

Blusa da zuen oinarria. Nolantan?

Hirurok talde ezberdinan ibili gara, musika ezberdina lantzen. Baina, aspalditik genbiltzan blues taldea sortzeko ideia-rekin buruan. Gure abesti denek bluesaren estruktura harmonikoa dute. Baina, abesti guztia estilo anitzeko hornidurekin aberastu ditugu, bluesaren bideari jarraituz. Horren emaitza da gure diskoko musika fresko eta modernoa. Hau da, ez dugu betiko blues beltza eta zaharra lantzen.


Ez da normala blusa lantzen duen taldea topatzea. Debagoienean, gehienak, musika bortitzagoa egiten dute.

Erabat kontzienteak gara gure inguruan gutxi entzun eta ezagutzen dugun musika estiloa jorratzen dugula. Baina hori ez da bluesarekin soilik gertatzen. Debagoienean, badirudi musika bortitzak soilik duela lekuak.

Dena den, pixkanaka-pixkanaka, zuzeneko kontzertuetan gure lekua topatu dugu. Oro har, jendea harrituta geratzen da bluesarekin, eta ezagutzen ez zen musika horrek jende ugari era-karri du.

Zeintzuk dira zuen entzuleak? Nortzuengana heldu gura duzue?

Ahalik eta jende gehiengana heldu gura dugu. Gure ustez bluesak ez du adinik. Egia da, helduek gazteek baino gehiago ezagutzen dutela bluesa, musika heldua da-eta. Baina harritzeko da zenbat gazte geratzen diren gure kontzertuetan amaieraraino, ordura arte entzun gabe zuten estiloarekin txundituta. Gainera, gazteei bideratuta blues kontzertu didaktikoa egiten dugu, musika zabaltzeko asmoz. Alegia, musika egiteko beste bide eta moduak daudela ikas dezaten. Ea behingoz, gure inguruko irmotasun musicala desataskatzen den.



Hamar kanta infernuko bluesa entzuteko

Bluesaren esentzia ezagutu gura dutenek, derrigorrean entzun behar dute *Infer* diskoa. Hamar kanta bildu dituzte: *Infer*, *Hau da dagoena*, *Potrotaraiño najak*, *String Breaker*, *Vegas*, *Pedalman*, *Ibaragarai Blues*, *Zenbat buelta?*, *Best thing of the day* eta *Rober's Blues*.

Irratietan hasi dira bergararen diskoko aurkezpena egiten, eta lehen abestiak jartzten. Baina, oraindik taldea eta euren lehen lana ezagutzen ez dutenak, hilaren 14an Azpeitian egingo duten kontzertura joan daitezke. Hain zuzen ere, Korrale tabernan aurkeztuko dute diskoa, 21:00etan.

Mireia Bikuña

Gainera, disco berria besapean dugula kontzertuak egiten jarraituko dugu. Orain arte 30 inguru eskaini ditugu.

Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?

Gure musika batez ere gitarra elektrikoan oinarritzen da, eta bere soinua eta ejekuzioan, eragin handia izan dute bluesaren izar handienek; besteak beste, Steve Ray Vaughan, Jeff Healey, Joe Bonamassa, Smokin, Joe Kubek, Albert King eta Francisco Simonek.

2007an Danbaka musika lehiaketa finalera heldu zineten. Nolako esperientzia izan zen hura?

Taldeari sekulako bultzakada eman zion. Ibarrean ezagun egin ginan eta moral handia eman zigun proiektuarekin buru belarri jarraitzen. Gainera, Espaloian egindako kontzertuak bereziki gogoratzen ditugu.

Kilometroak 07-ko kanta ere egin zenuten. Nolatan?

Aranzadi Ikastolako enkarigua izan zen. Beste hainbat talde eta bakarlarik aurkeztu zituzten euren ideiak, baina azkenean gure kantua aukeratu zuten: *Argi daukagu*. Illusio handiarekin hartu genuen erronka hori eta gustura geratu ginen emaitzarekin.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. 75 metro koadroko etxebizitza salgai San Andresen. Bañez Doktorea kalean. Berrikuntzak behar ditu. 162.273 euro. 629 10 41 31.

Arrasate. Santa Marinan etxebizitza salgai. Bigarren solarra. Hiru logela, egonela, sukaldea eta komuna. Garajea eta sotoa. Guztiz berritu. Deitu telefono honetara: 943 79 39 57 edo 653 73 24 62.

Bergara. Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egonela, logela bat, komuna, bal-

BERGARA

Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin.

610 73 65 40

koia eta trastelekuia. 46 metro koadro. Guztiz berritu eta jantzia, bizi izatera sartzeko moduan. 152.000 euro. Prezio negoziagarraria eta ordaintzeko erraztasunak. Deitu telefono honetara: 635 70 49 74.

Ezkari. Bi logela, berogailua, igogailua, garaje itxia eta urbanizazioa igerilekua. Jantzia. Valdezkaraifik 10 kilometroretan. Deitu telefono honetara: 650 60 12 14.

Ofiati. 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egonela, ganbara eta garajea. Oso eguzkitsua. Prezioa adosteko. Deitu telefono honetara: 680 44 95 55.

Ofiati. 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egonela, ganbara eta garajea. Oso eguzkitsua. Prezioa adosteko. Deitu telefono honetara: 680 44 95 55.

Ofiati. 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egonela, ganbara eta garajea. Oso eguzkitsua. Prezioa adosteko. Deitu telefono honetara: 659 35 09 30.

ganbara eta garajea. Oso eguzkitsua. Prezioa adosteko. Deitu telefono honetara: 680 44 95 55.

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. 70 metro koadroko etxebizitza ematen da errantzen ibarran. Bi logela. Garaje itxarrekin. Deitu telefono honetara: 656 73 13 21.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errantzen Erguinen. Oso ekonomikoa. Hiru logela eta egonela. Bikote edo ikasleentzat egokia. Jose Angel eta Laura. 615 74 32 79 edo 696 79 43 88.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errantzen urtarriletki aurrea. Unibertsitate ondoan. Hiru logela. Berogailurekin. Deitu telefono hauetara: 653 72 55 85 edo 620 31 33 72.

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errantzen. Berogailu zentral dauka. Igogailua. Deitu telefono honetara: 605 77 51 71.

Ofiati. 100 metro koadroko etxebizitza ematen da errantzen Ugarkale auzoan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egonela eta terraza. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 645 71 98 84.

Ofiati. Etxebizitza ematen da errantzen erdigunean. Hiru logela eta estudioa. Jantzia. Deitu telefono honetara: 680 97 06 31.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Logela edo etxebizitza txikia hartuko nuke errantzen, kontratarekin. Mutillarduratzua naiz, lan finkoarekin. Deitu telefono hauetara: 943 77 07 01 edo 656 66 49 75.

Bergara. Berogailudun eta telefono lineaean etxebizitza hartuko nuke errantzen. Deitu telefono honetara: 686 52 15 98.

Debagoina. Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errantzen. Antzuolan bida hobeto. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 627 75 81 94.

Debagoina. Etxebizitza hartuko nuke errantzen. Deitu telefono honetara: 635 73 24 28 22.

Bergara. Gela ematen da errantzen, sukaldea erabilteko aukerarekin. Erdigunean. Eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 630 46 36 71.

Gasteiz. Neskendako El Pilar auzoan logela errantzen ematen da, sukaldeko eta bainugelarako eskubideekin. Gas naturaleko berogailua, bitrozeramika, hotzgailua, garbigailua, etxe-

bizitza osoa kanpoaldeko bistekekin, egorea ezin hobeant. 220 euro etxeko gastoak kenduta. 630 74 24 95 edo 656 93 33 05.

Unibertsitateko irakasleak. Arrasaten edo inguruaren logea hartuko lukete errantzen abendutik uztailera bitartean. Deitu telefono honetara: 615 79 49 51.

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu. Arrasateko erdialdean, unibertsitatetik 5 minutura. Sukaldea guztiz horritua, logelak eta sala handiak, bi bainugela. Wifia. Eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

Bergara. Gela ematen da errantzen, sukaldea erabilteko aukerarekin. Erdigunean. Eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 630 46 36 71.

Arrasate. Garaje itxia ematen da errantzen. Arrasate herriko Arimazubi plazan. Deitu ezaizue telefono honetara: 635 73 75 17.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri dirugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera utzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

105. ETXEAK OSATU

Antzuola. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu telefono honetara: 607 59 18 49.

Arrasate. Mutil batek logela haritu nahiz errantzen. Deitu telefono honetara: 645 72 25 24.

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu. Arrasateko erdialdean, unibertsitatetik 5 minutura. Sukaldea guztiz horritua, logelak eta sala handiak, bi bainugela. Wifia. Eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

Bergara. Gela ematen da errantzen, sukaldea erabilteko aukerarekin. Erdigunean. Eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 630 46 36 71.

Gasteiz. Neskendako El Pilar auzoan logela errantzen ematen da, sukaldeko eta bainugelarako eskubideekin. Gas naturaleko berogailua, bitrozeramika, hotzgailua, garbigailua, etxe-

bizitza osoa kanpoaldeko bistekekin, egorea ezin hobeant. 220 euro etxeko gastoak kenduta. 630 74 24 95 edo 656 93 33 05.

Unibertsitateko irakasleak. Arrasaten edo inguruaren logea hartuko lukete errantzen abendutik uztailera bitartean. Deitu telefono honetara: 615 79 49 51.

Arrasate. Neska euskalduna behar da umi bi arratsalde zaintzeo. 635 95 91 34.

Bergara. Emakumea euskalduna behar dugu umeak zaintzeo.

Debagoina. Emakumea euskalduna behar dugu umeak zaintzeo.

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Kontsumo.** Eusko Jaularitza. Kontsumo gaietan prestatu eta ikerantzko bekak. Bi beka daude: Zuzenbideko lizentziatura eskatzen da batentzat eta Dokumentazio eta Bibliotekonomiako lizentziatura edo diplomatura bestearrentzat.

LANA

> **Elektrikariak.** Bergarako Udal. Lehiaketa-oposizio bidez obra eta zerbitzuetako elektrikarien lan poltsa osatzeko dealdeia. Epea: azaroaren 14a

> **Udalzainak.** Bergarako Udal. Oposizio bidezko 4 lanpostu eta lan-poltsa osatzeko lehiaketa.

> **Bigizarte laguntzaile.** Zumaia-ko Udala. Oposizio lehiaketa. Epea: azaroaren 19a.

IKASTAROAK

> **Kzguneko Azaroko Ikastaroak.** Bilatu zuretzako interesgarria izan daitzeen ikastaroa. <http://www.kzguna.net>.

LEHIAKETAK

> **Argazkilaritz.** SOS arrazakaria. "Kirola Integrazio eta Bitarteko" IV. Argazki lehiaketa. Epea: abenduaren 9a.

> **Margolanak.** Pasaiako Udal. Trintxer kulturala. Pasaiako Herriko XII. Margolan lehiaketa. Epea: abenduaren 9a.

EKINTZAK

> **Boluntarioak San Juan De Di-serako.** Arrasaten 100 urte baino gehiago lanean dabiltza buruko gai-xotasuna duten pertsonekin. Musika tresnaren bat jotzen badakizu, dantzatzen, abesten edota eskulanak egiten, eta hau guztia konpartitu nahi baduzu: mondragon.voluntariado@hsjd.es edo 943 79 39 00.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 10



Behobia-Donostia:
ibarreko
partaideak gertutik

19:45

Behobia Donostia lasterketan Debagoieneko korrikalarien jarrautu du Xabier Urtzelaik *Harmailatik* kirolsaioan.

Martitzena, 11



Aitor Furundarena
akordeoi jotzailea
'Ilunpean' saioan

21:45

Euskal Herriko akordeoi Elkarte-ko presidente da Aitor Furundarena akordeoi jotzaile eta konposatzalea. *Ilunpean* saioan izango da.

Eguaztena, 12




'Berria' saioa
egunero Goiena
Telebistan

14:45

Goiatz Aranaren eskutik, Debagoienean gertatzen denaren gaineko informazioa jasoko duzue egunero, 14:45ean, Goiena Telebistan.

Eguena, 13



'Berbaire' saio
berezia Goiena
Telebistan

20:30

Zientzia, Teknologia eta Berrikunta astea ospatzeko hainbat jarduera antolatu dituzte Garaia Berrikuntza Gunean. *Berbaire* bertatik egingo dute.

Egubakoitza, 14



'Katagorri'
marrazki
bividunak

17:15

Egubakoitzero, 17:15ean, *Katagorri* marrazki bividunak eskainiko ditu Goiena Telebistak. Etxeko txikiak tarte on bat pasatzeko aukera bikaina, beraz.

arrasate irratia

FM 107.7

> **Zartzuelarako sarrerak zozketatzeko**
Arrasate Irratian 10:30

Izaskun Murgia elkartea lirikoak pres-tatutako *El Barberillo de Lavapiés* Barbieri-ren zartzuela ikustera joateko zortzi sarrera dituzte irratian. Interesa beduzu, deitu eza zu 943 25 05 05 telefona.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskuak; hirugarren adinekoak gaineak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri-saioan, eta sexología kontuak, bestek beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorionagurak (parte hartzeko):
9 43 25 05 05
(irratia@goienea.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00
albistegi laburra.

asteko hitzorduak

Jardunaldiak



ARRASATE

> **Historia eta Zinema jardunaldiak azkeneko filma emango dute asteon**

Arizmendi ikastolak antolatutako jardunaldiak azkeneko saioa egingo dute bihar, martitzena: *Sin novedad en el Alcázar* (Augusto Genina, 1940). Xose Manoel Nuñez Seixas-ek hitzaldia egingo du. Kulturaren da, 18:00etan.

Musika



ESKORIATZA

> **'Une akustikoak' diskoa aurkeztuko du zuzenean Keu Agirretxeak**

Keu Agirretxeak musikari bizkaitarrak *Une akustikoak* delako diskoa, bere lehen akustikoa, aurkeztuko du Inkernu tabernan. Egubakoitzean, hilak 14, izango da, 22:30ean. Zazpi abesti batzen ditu diskoak.

Musika



ELGETA

> **Juan Carlos Perez Elgetako Espaloian, azaroaren 23an**

Juan Carlos Perezek emanaldia egingo du azaroaren 23an Espaloia Kafe Antzokian. Aspaldiko partez Itoizeko kantari ohia zuzenean ikusteko aukera izango dugu. Sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Albako Dukesia be Oñatin...?

A spaldi baten idatzi neben Oñatin bauela zurrumua arrua Albako Dukesian semia eta Koplowitz Oñatin ezkondu bihar ziala. Baina pasau da denboria eta ez du ezer gehixau jakin horri buruz. Egunotan, baina, telebistako programa larrosetan bolo-bolo dabil Dukesia bea ezkondu bihar dala. Eta, nere galderia da, Oñatin ezkonduko ote da? Entzun dot, bere albia Eugenia be ezkondu bihar dala. Gonzalo Mirokin. Hori Oñatira etorri ezkerro, bat baino gehixau fango da bodio ikustera!

Oihan Vega
Donostiako helmugan egon zan musikia jarri eta animuak emuten

Gainontzekuan, ez da ezer apartekorik pasau ibarrian. Edo, behintzat, ez da kuxkuxeruan belarrittara ailau.

Aste bukaeran kirola izan da protagonista ibarrian, eta baita Gipuzkoa osuan be. **Behobia-Donostia** lasterketan debagoiendar mordua iku-si dittugu; Behobia txikixan be, aurrian ibili dia Oñatiko neska mutikuak. Harrobixa gogor datorren seinala. Behin Behobia pasauta, San Silvestrera begira jarritta dau jendia. Ni, daudeneko, banabil entrenaiten!


Oihan Vegak maratoi erdixa ez dau in, baina hortxe-hortxe ibili da. Egubakoitzan *Infer* diskuaren aurkezpena izan eben Belcebluesekin Bergaran. Atzo, berriz, Donostian euen musika doinuaz korrika-larixak animaiten.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com



ARETXABAleta

Kristina Gomez

Azaroaren 12an. Zorionak amama! Oso ondo ospatuko dugu zure urtebetetze eguna. Patxo handi-handi bat Xabitxo eta beste denon partetik!



ONATI

Iraide Loiti Palacios

Azaroaren 12an 2 urte betetzen ditu. Zorionak printzes, bi marrubizko patxo goxo goxuak zureztat familia guztien partez. Ondo pasa eguna!



ARRASATE

Naroa Kortabarria

Maskariano Azaroaren 13an. Zorionak potxola! 2 urte bete dituzun egunean, laztan handi bat etxeko guztien partez. Ondo pasa eguna!



ARETXABAleta

Jabi Garcia

Azaroaren 13an 37 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik.



ARRASATE

Aimar Mijangos

Barandiaran Azaroaren 13an 7 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat Maddi, aitatxo eta amanton partetik.




ARRASATE

Beatriz Belategi

Bidaburu Azaroaren 14an. Zorionak aita! Ondo pasa zure egunen, eta patxo handi-handi bat zure familixaren partetik. Muak!

jaiotakoak



ARRASATE

Eñaut Bergaretxe

Azaroaren 6an, 9 urte. Zorionak maitia, eta patxo bat familiaren parte!



ARRASATE

Maribel Erle

Lizarralde

Azaroaren 7an, 61

urte amama

Maribek.

Zorionak eta urte

askotarako zure

etxeko partetik.

Superamama!!!!



ONATI

Iker Igartua


Kortabarria

Azaroaren 8an, 3

urte. Zorionak rubia

eta patxo handi bat

etxeko partetik.



ONATI

Oier Fernandez

Urizar

Azaroaren 7an, 18 urte. Zorionak! Hau Paulaner batekin (?2??3?) zelebrau biakoxu 18 urte ettukela eguneo beteten. Lokal 18n partez.



ARRASATE

Haizea Tornay

Azaroaren 7an. Etxeko printsesak 5 urte bete ditu. Zorionak etxeko guztien partetik.



ONATI

Garazi Erostarbe

Azaroaren 7an, 8 urte. Zorionak etxeko partez, guapisima!



BERGARA

Malen Yabar

Azaroaren 14an 100urte. Zorionak etxeko partetik. Patxo handi bat.



ARRASATE

Maribel Erle

Lizarralde

Azaroaren 7an, 61

urte amama

Maribek.

Zorionak eta urte

askotarako zure

etxeko partetik.



ONATI

Iker Igartua

Kortabarria

Azaroaren 8an, 5

urte. Zorionak etxeko partetik, txa-

peldun!



ARRASATE

Erika Ferreira

Carrero

Azaroaren 8an, 4 urte. Zorionak izeba eta aitonamona partetik!



ESKORIATZA

Leire Lapuente

Kortazar

Azaroaren 9an, urtebetete. Zorionak potxola! Patxo handi bat etxeko partetien guztien partetik! Paaaaaaaaaaaaaa!



BERGARA

Mikel Najera

Azaroaren 10ean 4 urte betetzen ditu. Zorionak amama, Mikel! Zu beti onena! Gelako lagunen partez.



ARRASATE

Ixiar Okina Altube

Azaroaren 10ean 4 urte betetzen ditu. Zorionak zure ahizpa Eneritzen partetik!



ARRASATE

Iker Lage Sebastian

Azaroaren 10ean 3 urte betetzen ditu. Zorionak zure ahizpa Eneritzen partetik!



GASTEIZ

Alejandra

Ormaetxea

Bolinaga

Azaroaren 11n 5 urte betetzen ditu. Zorionak Garazi! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Patxo handi bat Atxabaltatik, bereziki Irati eta Haritzen partez.




ANTZUOLA

Silvia Berasaluze

Regidor

Azaroaren 11n urtebetete. Zorionak Arrasateko aitonamona eta osabizeben partetik.



ESKORIATZA

Eneko Urrutia Elorza

Azaroaren 11n 2 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik!



ARRASATE

Imanol Azpiazu

Azaroaren 11n 5 urte betetzen ditu. Zorionak eta ondo pasa! Familiakoak.



BERGARA

Haizea Arantza

Azaroaren 11n 2 urte betetzen ditu. Zorionak sorgintxo! Ondo-ondo pasau eguna, prestatu belarriak bi tiraka-jaso patxo mordo bat etxeko guztien partetik, bereziki Auritz.



BERGARA

Unai Zubizarreta

Azaroaren 11n Osintuko Unaik 10 urte bete ditu. Zorionak eta urte askotarako txapeldun!




BERGARA

Aimar Basauri

Larrion

Azaroaren 12an 6 urte betetzen ditu Zorionak eta patxo handi bat familiaren partetik, amaxto eta aitatxoren partetik!



ARETXABAleta

Kristina Gomez

Azaroaren 12an. Zorionak amama! Oso ondo ospatuko dugu zure urtebetetze eguna. Patxo handi-handi bat Xabito eta beste denon partetik!



ONATI

Iraide Loiti Palacios

Azaroaren 12an 2 urte betetzen ditu. Zorionak printzes, bi marrubizko patxo goxo goxuak zureztat familia guztien partez. Ondo pasa eguna!



ARRASATE

Naroa Kortabarria

Azaroaren 13an. Zorionak potxola! 2 urte bete dituzun egunean, laztan handi bat etxeko guztien partez. Ondo pasa eguna!



ARETXABAleta

Jabi Garcia

Azaroaren 13an 37 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik.



ARRASATE

Aimar Mijangos

Barand

asteburuko albuma

Harreman. Harreman Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE) Arrasateko Eroski supermerkatuan dastatzea eta bidezko merkataritzako kanpaina egin zuen zapatuan. Urtero moduan, hainbat produktu ipini zituzten salgai; esaterako, gaietak, txokolatea, pasta, bonboiak, rona edota ardoa. Bidezko merkataritzako postura hurbildu zen jendeak erakutsi zuen interesa Harreman GKE-ak ipinitako elikagaien gainean. Postuan ateratakodirua, Eroski Supermerkatuan dagoen bidezko merkataritzako dendara bideratu dute.



Hondarribiko arraunlariak. Hondarribiko arraunlariak izan ziren zapatuan Elgetan, herriko bi koadrilak gonbidatuta. Duela bospasei urtetik urtero etortzen dira arraunlariak Elgetan egun pasa bat egitera. Goizean Asentzioko monumentua eta Intxortako atea bisitatu zituzten eta ondoren herri kirolak ere egin zituzten arraunlariek eta Elgetako bi koadrilek.



Ikusi Makusi antzerki taldea Aretxabaletan. Oñatioko Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak Aretxabaletako kultura etxearen eskaini zuen *Nos Vamos de Vacaciones* euren azken antzezlana egubakoitzetan. Taldea arrakasta izaten ari da eta hainbat tokian eskaini dute lana.



Markelñe antzerki taldea Oñatin. Markelñe antzerki taldeak atzo eskaini zuen Santa Ana Antzokian umei zuzendutako *Mambru* antzezlana. Lanak, gerrara doazten bi emakume soldaduren istorioa kontatzen du.



Gaztaina erre eguna. Gaztaina erre eguna egin zuten egubakoitzean Bergarako San Martin ikastetxeen. Urtero legez, dambolina atera eta modu tradizionalean gaztainak nola egitendiren erakutsi zieten umeei. Gurasoak ere gonbidatuta zeuden.

jaiotakoak



Izar Delgado Rasco

Ermua > 2,980 kilo. Azaroaren 4an. Gurasoak: Leire (Ermua) eta Felix (Ermua). Argazkian, Izar jaioberria, amarekin.



Yeray Garcia Moreno

Eskoriatza > 2,540 kilo. Azaroaren 2an. Gurasoak: Estibaliz (Eskoriatza) eta Ruben (Eskoriatza). Argazkian, Yeray jaioberria, sehaskan lo.



Mikel Fernandez Castillejo

Bergara > 3,600 kilo. Azaroaren 3an. Gurasoak: Idoia (Bergara) eta Karlos (Bergara). Argazkian, Mikel jaioberria, gurasoekin.




Urtzi Diaz Rivas

Eskoriatza > 3,560 kilo. Azaroaren 7an. Gurasoak: Encarni (Eskoriatza) eta Bittor (Aretxabaleta). Argazkian, Urtzi jaioberria, amarekin.



Garazi Azkarate Ojanguren

Arrasate > 3,730 kilo. Ama: Saioa (Arrasate) Aita: Sergio (Arrasate) Argazkian, Garazi jaioberria, amarekin.




Laia Etxagibel Ruidiaz

Arrasate > 3,300 kilo. Azaroaren 5ean. Gurasoak: Leire (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Laia jaioberria, amarekin.



Beñat Juaristi Bereziartua

Arrasate > 3,970 kilo. Azaroaren 5ean. Gurasoak: Eider (Arrasate) eta Igor (Legazpi). Argazkian, Beñat jaioberria, sehaskan lo.



Garazi Lamadrid Cardoso

Arrasate > 3,520 kilo. Azaroaren 7an. Gurasoak: Mertxe (Aretxabaleta) eta Jesus (Arrasate). Argazkian, Garazi jaioberria, amarekin.



BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Iñigo Segurola > Paisajista

"Oiloak eta letxugak ziren txikitako lagunak"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Iñigo Segurola donostiarra Oiartzungo baserri baten bizi da, 3.000 metro koadroko lorategi eta ortu batez inguratuta; zoriontsua da han. Telebistan, *Bricomanía* eta *Decogardens* ahoetan dabil eta paisismoan lan egiten du.

Haurtzaroko zati handi bat familiak Oiartzunen zeukan baserri-etxeen pasa zenuen...

Bai, txikitako pertsoneneko lotura baino gehiago animalieki eta landareekiko neukan. Ordurako oiloak, untxiak eta ortu txiki bat neuzkan. Gainera, amonari saltzen nizkion letxugak (barre). Nire orduko lagunak ziren oiloak, letxugak, untxiak... Gerora, gainera, amak kontatzen oso txikitako ere hosto eta arrama ugari ekartzen nituela etxera.

Zelatan joan zinen Edinburgo-ko ikasketak egitera?

Aspalditik oso argi neukan hori ikasi gura nuela, baina Euskal Herrian zein Spainian ez dago halakorik. Etxean esan nuen esan zidaten aurretik bes-

te zeozer ikasteko eta Nekazaritz Peritura egin nuen Iruñean. Hala, gerora dirua aurreztu eta Edinburgora jo nuen. Gezurra badirudi ere, Edinburgon izan nintzen bi urtetan bi parranda bakarrik egin nituen; ikasi eta ikasi ibili nintzen han. Are gehiago, ingeles maila oso handia hartu nuen.

Txinoek diote mundu zoro honetan osasungarriena ortu bat lantzea dela...

Bai, horrek bizitzako ziklo guztiekin lotzen zaitu: zerbait

TEST-A

Herria: Donostia. **Adina:** 41 urte. **Ikasketak:** Nekazaritz Peritura eta Paisajismoa. **Zaletasunak:** Sukaldaritz, jatea, ardoa edatea eta ortuan ibiltzea. **Zer amets bete duzu?** Neuzkan amets guztiak bete ditut, nire bizitzaren oso balorazio ona egiten dut. **Zer bidaia daukazu gogoan?** Neu, bidaiatzen dudanean, lorategiak ikustera joaten naiz. Frantzian Le Jardin Plume ikusi nuenean ia negar egin nuen, ikaragarria da.

landatu, zaindu eta jan; eta horrek ez dauka preziorik. Ni, gainera, gai izan naiz urte osoan ortuan jateko izateko planifikatzeko, eta horrek zoriontasun handia ematen dit.

Teoria ekologista erradikal baten sinisten duzu...

Bai, Edinburgon ezagutu nuen Deep ecology teoria. Horrek esaten du gizaki larregi gaudela munduan eta ezinbestekoa dela gutxitzea. Gizakiok ez gara munduan bizi garen bakarrak, eta hala oreka lortzea ezinezkoa da.

Zure diskurtsoa entzunda, harritzen nau begetarianoa ez izatea...

Behin baino gehiagotan horretan pentsatut. Etxean ez dut inoiz okelik jaten, baina kanpoan eskaintzen badidate jaten dut. Hala ere, nire ustez letxuga edo brokoli batet ere bizitza dauka. Zer da garrantzitsuagoa, behi baten edo letxuga baten bizitza? Arrainak ere gero eta gutxiago jaten ditut. Itsasoak zelan dauden ikusita, agian hobe da arraina bai-nuen, ikaragarria da.



BARAZKIAK Landaretza oso garrantzitsua da Segurolaren dako.

IKER BARANDIARAN

ai, ene!



Aparkaleku falta?

Autokarabanan modan daude azkenaldia eta aparkalekuak faltan herri askotan. Egoera hori guztiz konponduta gelditzen da ondorengo luxuzko autokarabana erosten duenaren dako. Horrela aparkaleku-kuen arazoa konponduta!

<http://www.sarda.es>

biharamuna

Iñigo Biain


Mundua txuri, mundua beltz

Juan den asteartean mundu guztiko begiak Ameriketako Estatu Batuetara zuzendu ziren. Lehen aldiz beltz bat izan zitekeen EEBBetako presidente, eta ondorioz, munduan zuzendari. Eta bai, azkenean bera atera da garaile, Barack Obama, txiroen, beltzen, latinoen eta sistemak zigortutako haien defenda-tzailea. Egia izango da zuriek *beltz* duten mundu hau, beltz honek *zurituko* duela? Egia izango al da ure *beltzaren* bila AEBek zabaldutu dituen fronteak (Irak, Kongo, Ruanda, Kuwait, Afganistan, ...) beltz honek itxiko dituela? Sinetsi al dezakegu dirua *zuritzeko* munduko

makina handiena (Operazio humanitarioak, FMI, Banku Mundiala, NBE...) Obamak geldiaraziko duela? Eta EEBBetako beltz, latino eta pobreenak bereziki zigortzen dituen heriotza zigorra? Barack Obamak badauka lana bere aurrekoek okertu duten guztia zuzendu nahi badu, baina badirudi azken hamarkadetan putzu *beltzean* erorita zegoen ilusioa berriro azaleratzea behintzat lortu due-la. Beltzak beltz, eta zuriak zuri, ia kampaña euskaraz ere egin duen gizase-monek kolore pixka bat ekar-tzen duen mundura, zozoaren eta belearen jokoan erori gabe.



eguraldia



MAXIMOA

+15

MINIMOA

+7

Astea hodeiekin hasiko dugu, eta gero eta ugariagoak izango dira. Temperaturan ez da aldaketa handirik egongo.

www.euskalmet.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea	KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea	KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINOL hutsunea	KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea	KODEA

Folk
Arrasade honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bei euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakazealeak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bikziale Maite (Benito Lerbundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herriko Euskaraz (Osorki) | **EUSKAL**
Euskaldun beraren balada (Osorki) | **EUSKALDUN**
Ez da posibila (Ruper Ordonika) | **POSEBLE**
Furra Furra (Osorki) | **FURRA**
Galizara noa (Osorki) | **GALIZARA**
Gernikako Arbola (Gonzalo Mendiola) | **GERNIKA1**
Haika Mutti (Mikel Laboa) | **HAIKA**

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINOL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

KODEA

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko : 1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Hinnoak
Eibar i **EBAR**
Athletic Club i **BILBAO**
Osasuna i **OSASUNA**
Real i **REAL**
Real Union i **UNION**
Folk
Arrasade honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bei euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakazealeak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bikziale Maite (Benito Lerbundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herriko Euskaraz (Osorki) | **EUSKAL**
Euskaldun beraren balada (Osorki) | **EUSKALDUN**
Ez da posibila (Ruper Ordonika) | **POSEBLE**
Furra Furra (Osorki) | **FURRA**
Galizara noa (Osorki) | **GALIZARA**
Gernikako Arbola (Gonzalo Mendiola) | **GERNIKA1**
Haika Mutti (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**
Lepor hartzta (Pancho/Peio) | **LEPOAN**
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | **MARINE**
Nire herriko neskaba maite (B.Lerkundi) | **NERE**
Non geratzen den denbra (Mikel Urdangarin) | **NON**
Oil Ama Euskal Herria (B.Lerkundi) | **OMAMA**
Tirauki (Osorki) | **TRIA**
Txatxamalatxina (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordonika) | **ZAINDU**
Herrikoia
Bagarei **BAGARE**
Desde Monturiola a Bilbao | **DESDE**
Iku Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

LAU1 **MUSKARIA** **AIZKORAK**
NUKLEAR **KALABERA1** **EGUZKIORE3**
SORGIN **POPATIK** **KAPUTX**

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarri den eskaientz ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari

Bertan jasoko du behareko ditzun informazio guttia. 2. **BALDINTZAK:** Edukitak eskaratuko, beharekoa da GPRS sistema aktibatuta izatea, GPRS sistema aktibatzeako, jarraitze zure hornitzalearekin harremanetan. Alfa ematesa doan da eta Ko jantsiera bakanik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sistema alta ematesa doan dira.

* Euskaldet: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-# / * Movistar: deitu 009-#.

3. **ZALANTZAK:** Edozein zalaranta duzula, jarri gurekin kontaktua: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. **PERTSONALIZazioak:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratuta eta erabiliztaileek esku dezaketa nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.